Hiru ahizpetan bigarrena. "Antzekotasun batzuk izan arren, Nekane, Ainhoa eta hirurok nahiko ezberdinak gara", zehaztu du Pilar Azurmendi (Hernani, 1973) arkitektoak. Hiru haurren amak, Garazi (5 urte), Oihan (2 urte) eta Uxue (hilabeteak); gustuko du bere lanbidea. Baita ingurumaria ere. Arkitektura eta eskultura ardatz duten liburu asko baititu etxearen.

Alvar Aalto finlandiarra da Azurmendiren arkitekto kuttunena. Eskulturagintzarekin, berriz, "zalantza gehiago dauzkat", esan du. Oteiza eta Chillida begiko ditu. "Oteiza pertsona konplexua zen; bere espazioaren ikuspean gogoko dut. Chillidak eraikitzen zituen eskulturek, bestalde, indar handia helarazten dute. Bakoitzera bere esparruan maisua zen".



"Zumaiako kaleetan barrena oso gaztetatik ibili arren, hernaniarra naiz".

Hernaniarra izateaz gain Plaza Berriko kimua zara.

Bi urte bete nituen arte Urnietan bizi izan ginen. Baita bolada batean Urbietako kalean ere. Handik Plaza Berriara jo genuen. Nire aitaren familia bertakoa da.

Plaza Berriak xarma berezia al du?

Bai! Dudarik gabe. Arkitektoa izanik, Kortazarrek eta Mokoroak egin zituzten etxeen alboan bizi izanda, zer esanik ez.

Hernaniren bihotzetaiko batean bizi izan zara, beraz?

Zenbat ordu pasa izan ote nituen txikitain, lagunekin batera, katuak harrapatzen! Saitzen behintzat bai. Amak esaten du "sarnaz jositako katu guztiekin" azaltzen nintzela etxearen. Uste dut egungo gazteek baino kale-bizitza gehiago egiten genuela. Nahiz eta garai batean Plaza Berriaren erdi-erditik kotxe eta autobusak igaro. Beti etxetik kanpo.

Plaza Berria oinezkoentzat egin zuen tenetik, aldaketa handia eman du. Hobera egin du. Ia ahaztuta izango dute hernaniar askok nolakoa zehaten. Argazki zaharretara joz gero kontzez josita ageri da.

Bizitza sozial handia du.

Bai. Ikaragarria. Lehen, kaxkokoeak bertan eguna pasa arren, ez zen hernaniarron bilgunea. Orain, bai, ordea.

Noiztik bizi zara Zumaian?

Hamalau urte joan dira jada. Halere, txikitik, familiak ia urte erdia igotzen zuen bertan.

Eta Zumaian zaudenean nola aurkezten zara? Hernaniarra edota zumaiarra?

Beti izan naiz erdi zumaiarra eta erdi hernaniarra. Halere "Zumaian bizi den hernaniar" gisa aurkezten dut neure burua. Nire haurtzaro guztia Hernanin dago, baita lagun handi asko ere. Baina zumaiarra ere banaiz. Beraz, erdia eta erdia. Zumaian urtetan ikusi nauen jende askok, jaiotzez ere zumaiarra naizela uste du. Zumaiko kaleetan barrena oso gaztetatik ibili arren, hernaniarra naiz.

Itsasoa esku-eskura duzu. Kresalaren premiarik?

Lehorrekoa izan arren, bai. Itsasoa ederra da. Horrez gain, lasaitasuna ematen dit.

Hernanitik zer botatzen duzu faltan?

Herri bizi-bizia da Hernani, eta hori oso aberatsa da: saltsa handikoa. Zumaia, ordea, lasaiagoa.

Urteetan atzera egingo dugu. Lehen ikasketak Langile ikastolan egin zenituuen.

Bai, urte zoriontsuak! Arriatsura joaten ginen oinez, euritan, eguzkitan edo elurretan. Irakasle eta ikasleon arteko harremana oso ona izan zen. Asko ikasi nuen Langile ikastolan: bizitzako tresnak batez ere.

Handik Agustin Iturriaga institutura joan zinen.

Bai. Hasieran, ikastolatik instituturako saltoa, gogorra egin zitzaidan. Halere, institutuko lau urte haietan, primeran pasa nuen. Ikasteaz gain gauza asko antolatu genituen: kultur astea... Baita eskolaz kanpo ere. Oroitzapen bikainak ditut: Hernaniko eta inguruko herrietako ikasle euskaldun eta ez euskaldun askok institutuan egin genuen bat. Topaleku aparta izan zen. Baita harremanan sakontzeko leku aproposa ere.

Kirolari dagokionez, eskubaloia eta judoan aritu zinen. Zer eman zizun batak eta zer besteak?

Ia hogeituz urtez aritu nintzen judoan.



Realak Txantxilan jokatutako lagunarteko partida bateko argazkia. Pilarek 5 bat urte edo izango zituen (Realeko kapitaina Jose Mari Martinez da, eta epailea, Guruceta).



Pilar judoan hasi eta gutxira eginiko argazkia (5 bat urterekin).

Oso oroitzapen onak ditut: eginiko lagunak... Kirol oso orekatua da. Gerriko beltza 17 urte ingururekin eskuratu nuen. Nire ahizpa zaharrenarekin, Nekanerekir, egiten nituen borroka gorrenak; gutxitan uzten ziguten elkarrekin lehiatzan. Berak irabazten zidan gehienetan...

Eskubaloian, hegalean eta pibote postuetan jokatu nuen. Talde giro bikaina presente dut. Euskadiko selekzioan jokatzerako heldu nintzen bai eskubaloian eta bai judoan.

Institutuko azken urtean, unibertsitatearen atarian, zer karrera egitea zebilen zure buruan bueltaka?

Geologia. Baina azkenean arkitektura egin nuen nahiz eta biak gogoko izan.

Karrerako urteak nolakoak izan ziren?

Arkitektura karrera bat baino maratoia da. Sei urte eta ikasketa amaierako lana egiten zen lehen. Beraz, gutxinez, zapta urteko lasterketa. Halere, karrera polita da. Anitza. Lan asko egin

behar den arren, gauza piloa ikasten dira: hirigintza, artea, egiturak...

Atzerrian ere egon zinen.

Bai. Ikasketen azken ikasturtea, 1997-98an, Finlandian eman nuen: Helsinkin.

Nolakoa izan zen Hernanitik Helsinkiako saltoa?

Aparta! Nire bizitzako urterik bikainena. Halere oso hiri garestia zen. Lanean aritu eta gero urte guztirako aurreztuta eraman nuen diru ia guztia Gabonetarako gastatua nuen! Klima ere ez zen samurra. Iluntasuna, adibidez, gogorra egin zitzaidan hasieran; une askotan egunean hiru orduko argi-uneak izaten baikenituen soil-soilik. Baina muturreko kontrasteak, paisaia eta munduko hainbat bazterretako ikaskideak ezaugu izana ederra izan zen. Esperientzia ikaragarria.

Ikasten aritu zinenean ez zinen geldirik egon.

Hasieran klase partikularrak ematen aritu nintzen; karrerako azken urteetan,

berriz, arkitektura eta ingeniaritzako lantegi batean. Lana eginaz ikasi dut lanbidea.

Helsinkitik itzuli, karrera amaitu eta...

Zumaiara joan nintzen bizitza. Orduan, nire bizitza asko aldatu zen. Lanean hasi eta ikasketa amaierako proiektua egin nuen.

Egun, Gipuzkoako Aldundiko Ondarearen zuzendaria zara.

Ia zazpi urte Itsasondo eta Lizartzako udalako arkitektoa izan naiz: 2002az geroztik, udal arkitekto oposaketak egin, eta aurrekoez gain, baita Oriokoa ere.

2007an, Aldunditik dei bat jaso nuen. Ea Gipuzkoako ondarearen zuzendaria izan nahi nuen galdetu zidaten. Hasieran, ezetz erantzun nien lanean gustura ari bainintzen. Bigarren aldiz deitu zidatenean, ondo hausnartu ondoren pausoa ematea erabaki nuen. Ez naiz batere damu, oso kontentu nago.

Lan berri honek zer eman eta zer kendu dizu?

Kendu, etxekoekin egoteko denbora. Eta eman, berriz, lan-talde bikaina.

Aldundian langile apartak daude eta asko ari naiz ikasten. Lan gogor bezain polita da. Gauza asko egiten ikusi eta gauzatu ahal izatea, plazerra da.

Zein elementurekin identifikatzen zara gehien: egurra, adreilua, harri edo burdinarekin.

Egurrarekin. Zergatik? Helarazten didan goxotasunarengatik.

Beraz, txalapartaren melodia faltan botatzen duzu.

Bai! Txalaparta jotzen ikasi eta Pello eta Jon lagunekin aritu nintzen jotzen hasieran. Ondoren, karrerako lehen urteetan, Harkaitz Martinezekin, Oreka TX-eko txalapartarietariko batekin. Bolada batean Añorgako garaje batean aritu ginen entseatzen. Urteak dira txalaparta ez dudala jo.

Hernanin zer eraikitza gustatuko litzaizuke?

Herrian? Ez dakit... Agian gehiegiz eraiki dugu herri guztietan azken urteotan...

Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendari hernanirra *Euskaldunak eta Pazifikoak*. Andres Urdanetaren omenez liburuaren aurkezpenean (argazkia: gipuzkoakultura.net).





Kale Nagusia, 2. Aierdi-Arretxea etxea.

Kale-buelta

herriko kaxkotik barrena

Hernaniko plazan gaude. Udalak, elizak eta etxeek inguratzen gaituzte. "Gudarien plazatik, guztia dut gogoko", esan du Pilar Azurmendik. "Udaletxea zoragarria da. Bai eraikin bikaina. Gipuzkoako dotoreenetarikoa. Itxura ederra du. Eliza ere gogoko dut; eliz ataria batik bat".

Plazak xarma berezia du Gipuzkoako Aldundiko Ondarearen zuzendaria-rentzat. "Zaharberritzea egin zutenean asko irabazi zuen baina zoruarekin ez zuten asmatu. Ez da erosoa. Harria laka denez, leundi egingo nuke. Oinezkoentzako hobeto egokituz gero, espaloien antzeko, herri-bizitzan asko irabaziko luke", gaineratu du.

"Plaza oso itxia da. Bi irteera berezi ditu: Ezkiagarantz, eta Lizeaga auzorantz. Udaletxeko tunel handi eta sendoa, dotorea da. Aierdi-Arretxea etxea eraikin polita da. Ez gara askotan konturatzten baina herriko plaza nagusi ederra dugu. Enkantu berezia du. Gipuzkoan ez daude gisa honetako asko", azpi-marratu du Azurmendik.

Udaletxea atzean utzi eta Kale Nagusitik beherako bidea hartu du hernaniarrak. Plaza Berriarako bidean ezker-eskuin topatzen dituen etxeetariko bati begira jarri da bereziki. Txiki-txikitatik du gogoko. Zaragüetatarren etxea da. "Barrutik ezagutzeko aukera izan nuen eta atentzioa eman zidan sartu nintzen egunean: 13 bat urte izango nituen". Beherantz jarraitu eta Egino jauregiaren parean jarri da. "Hau ere gogoko dut", erantsi du.



Egino etxea (Kale Nagusia, 17).

Nahiz eta eraikin bat ez izan, Oindi tabernaren aurrez aurre dagoen baldosaz egindako Jabones Lagarto-ren iragarkiari beti izan dio begirunea arkitektoak. Pauso batzuk gehiago eman, eta Plaza Berriko heldu da Azurmendi. Irizar tabernaren parean Kortazar anai arkitekto famatuek egindako etxeari begira jarri da. Txantxangorri elkartea dagoen eraikinari. “Nire aita bertan jaio zen”, erantsi du. “Bere familiaren etxea zen. Jauregi izeneko baten alarguna-rentzat eraiki zen 1906an. Nire birrato-nak erosia zuen. Aitz gain, amonak ere bertan jaio zen. Oraindik gogoan dut garai bateko begiratokia...”, zehaztu du hernaniarrak.

Sartu da hain ezaguna duen plazan barrena arkitektoa. Portalondoko etxea eta bere alboan dagoen itsason-tzi itxurako eraikinari begira jarri da heldu orduko. Portalondo etxea edo Jentilen Dorrea, eta botika dagoen etxea begiko ditu. “Bigarren hau, Florencio Mokoroa arkitekto ospetsuak egin zuen”, gaineratu du. “Hormigoiz eraiki zen herriko lehen etxeetarikoa da”.



Kale Nagusia, 33. Cortazar anai arkitekto famatuek eginiko etxea.



Jentilen dorrea edo Portalondo etxea (Kardaberaz kalea, 46).



Kardaberaz kalea, 48
Mocoroa arkitektoak
eginiko etxea, hormigoizko lehena.



Orain, kalean behera doa. Zinkoenea heldu orduko Agustindarren komentuarekin egin du topo. "Hau ere txikitán barrutik ikusteko abagunea izan nuen. Azken urteetan inguruak aldaketa sakona izan du. Bertan eginko lanek ingurua asko aberastu dute: Zinkoenea zentrorantz hurbildu da. On egin dio. Agustindarreneko herriko lehen eliza izan zen eta hortik gorantz hazi zen Hernani".

Zinkoeneatik gora abiatu da Azurmendi. "Arkitektonikoki alde zahar txukun bezain ederra dugu. Bainaz dakit behar adina balaratzen dugun. Kaxkoko etxeek altura asko hartu dute eta eraikinen arteko garaiera neurriz kanpokoa da. Altuak, kaleen proportziorako. Baita ilun samarrak ere; ez dira eguzkitsuak. Horrek alde

zaharraren osotasunari kalte egin dio. Adibidez, Hondarribia eta Segurako alde zaharreko etxeek altura txikiagoak direnez, edertasuna agerikoagoa da. Horrez gain, Hernanitik kanpo, gutxi ezagutzen da gure alde zaharra. Tarteak, oso ondo zainduriako etxeak daude: harribitxi ugari ditugu".

Kaxkoko arkitektura eta hirigintzarekin, hau da, eraikinen antolaketarekin zeresan handia duen usadio bat oso gogoko du Azurmendik: Azeri Dantza. "Alde zaharreko etxe eta atalondoen artean loturak ez balego Azeri Dantzak jai luke", erantsi du arkitektoak. "Hernaniarroi gehien gustatzen zaigun ekitaldia da; oso gurea baita", azpimarratzen du. "Ahal dudan baikoitzean espresuki hori ikustera joaten naiz festetara. San Joan sua ere

arrunt gogoko dut. Plaza Berrian bizi izan nintzean eta txistulariek jotzen duten Azeri Dantzako doinua entzun orduko, ikustera hurbiltzen nintzen. Benetan asko hunkitzen nauen ekinena da". Eta usadioa mantendu dadin, kaxkoko eraikinak banatzetan dituen karkaba, patioak... zabalik mantentzearen premia aldarrakatzen du: "bestela usadioa arriskuan egongo litzateke".

Fagollagako Erret Aingura Iantegia, Portu auzoan egon daitezkeen aztarnak, Urumea nabigagarri zeneko garaiak... Hamaika historia berreskuratu beharra ikusten du arkitektoak Hernaniko hainbat altxor habiatik kanpo ezagutarazteko. "Badugu lan ederrik", ondorioztatu du baikor Pilar Azurmendik. ■

25 años

de proyecto hombre Gipuzkoa



Eusebio de la Huerga, terapeuta de Proyecto Hombre Gipuzkoa

FUNDACION
I Z A N
FUNDAZIOA

En este año en que celebramos 25 años de **Proyecto Hombre en Gipuzkoa** hemos de recordar nuestros inicios, cuando **Iñaki Aldabalde**, en el año 1983 viajó a Roma para conocer, en el *Centro Italiano de Solidaridad*, el método **Progetto Uommo**. Allí aprendimos aquella metodología, que posteriormente se aplicaría aquí, en Gipuzkoa.

En estos 25 años, el fenómeno de las drogodependencias ha pasado por diversos ciclos: a la etapa de la **heroína**, le siguió la de las **drogas de síntesis** en la década de los 90 y, con su consumo, no tardaron en aparecer situaciones de dependencia psíquica en aquellas personas que abusaban de ellas, así como algunos brotes psicóticos en jóvenes con cierta predisposición.

En este "proceso evolutivo" de las drogodependencias, la **cocaína** es hoy una sustancia que, en mayor o menor medida, está presente en nuestra sociedad. Fue a partir de los años noventa cuando se temió que, coincidiendo con el descenso en el consumo de heroína, se diese un importante aumento en su consumo. Es a partir de aproximadamente el año 2000, y como consecuencia de ese aumento en su consumo, cuando comenzaron a llegar de manera significativa a los programas de rehabilitación personas "afectadas" por dependencia de/a la cocaína.

Actualmente, la sociedad se enfrenta además, a otra problemática: los consumidores de drogas no son conscientes de que ese consumo puede llevarles a desarrollar una **enfermedad mental severa** asociada a la drogodependencia.



Por tanto, desde 1985, nuestro Programa ha tenido que adaptarse al fenómeno cambiante de las drogodependencias. Para ello se han ido diversificando los itinerarios terapéuticos, respondiendo así a los diferentes perfiles que a lo largo de los años estamos atendiendo: junto al programa de atención para heroinómanos, se abrieron programas para personas más jóvenes que habrían desarrollado consumos abusivos de otras sustancias. También se presta atención al colectivo de consumidores de cocaína, que sin que hayan llegado a encontrarse en un estado de desarraigamiento familiar, social y laboral, y aun pudiendo mantener estos aspectos en su proceso de rehabilitación, se ven necesitados de una atención específica. Además, ofrecemos un servicio específico a aquellas personas que presentan una patología de enfermedad mental severa y también a los que tienen problemas con el alcohol.

Durante estos 25 años nuestro programa no hubiera podido seguir adelante sin el apoyo recibido de diferentes instituciones: Obispado, Gobierno Vasco, Diputación, Ayuntamientos, diferentes entidades religiosas y privadas...; y por supuesto, de la confianza de usuarios atendidos y de sus familiares.

Este apoyo institucional y social nos ha permitido contar con instalaciones en localidades como Donostia, Hernani, Lasao, Usurbil, Rentería. Hemos de señalar que la primera Comunidad Terapéutica fue la del municipio de **Hernani**, donde seguimos a día de hoy; siempre apoyados por las diferentes Corporaciones que a lo largo de estos años se han ido sucediendo, así como por sus vecinos. Para nosotros, los profesionales que trabajamos con este colectivo, y para los usuarios, es muy importante ese apoyo social, elemento indispensable en todo proceso de rehabilitación e inserción.

Para finalizar, señalar que en estos 25 años hemos tenido la oportunidad de compartir **alegrías**, por todas aquellas personas que han conseguido volver a tener una vida normalizada; **tristezas** por la alta mortandad, no solo por sobredosis sino también por esa "lacra" llamada SIDA, entre el colectivo de heroinómanos; e **ilusiones** por intentar buscar nuevas respuestas y responder a las necesidades de los nuevos usuarios que a nuestras instalaciones se acercan.

El trabajo en equipo, la profesionalidad, la dedicación, así como el apoyo de los diferentes voluntarios que a lo largo de estos años han colaborado con nosotros, ha hecho posible el desarrollo de nuestra entidad.

Gracias a todos aquellos que seguís pensando que trabajar por conseguir que la recuperación de la dignidad de la persona, merece la pena, a pesar de las dificultades que ello conlleva. ■



Harremonak

egitasmoa

Irantzu Jauregi Artola

Harremonak lan taldearekin aritu gara solasean, Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailak eta Berdintasun Kontseiluak sustatutako “Harremonak” egitasmoaren sortzaile eta dinamizatzaileak dira. Hernaniko gazteekin ibiltzen dira, “goxatzen”. Beraiek Edurne Mendizabal, Ibon Arrizabalaga, Asier Baglietto eta Edurne Epelde dira.

Zer da eta nola sortu zen **Harremonak**?

Harremonak egitasmo bizi-bizia da. Harreman onak, hormonak, ar-eme earrak... horiek uztartzetik dator izena.

Orain dela urte batzuk hasi ginen hainbat herritan eta bereziki Bilbon, berdintasunaren aldeko saioak ematen ikastetxeetan. Ondoren, emakumeen kontrako indarkeriaren prebentziorako egitasmoak eskatu zizkiguten. Horietan guztietan sexismoa ikusarazi eta aurrea hartzeko baliabideak eskauntza zen muina. Aurrerago, sexualitatea eta sexuen heziketan ere hasi ginen. Egun hainbat herritan gabiltza, Zarautz, Azpeitia, Azkoitia, Elgoibar... eta bereziki Hernanin. Gure eskarmendu eta gozoaren arabera tratu onak sustatzea eta plazera baloratzea eta bilatzea da helburuak lortzeko modurik eraginkor eta atseginena.

Zeintzuk dira ba egitasmoaren helburuak?

Ufff! mundua konpontzea, je, je! Beno, Harremonaken helburuak tratu onak sustatzea eta sexualitateen anitzasuna baloratzea dira.

Tratu onak diogunean, norbere burua, ingurukoak eta ingurua bera ondo tratzeaz ari gara. Gehiegitan entzuten dugu edozein “aitzakia” hartuta (sexua, arraza, adina...) edo aitzakiarik gabe elkar gaizki tratatzen dugula. Hala nola, ikusezin egitea, estereotipoak ezartzea, kritikak, gutxiespenak, irainak, erasoak eta abar. Gure ustez, jendarte honetan jasotzen dugun entrenamenduaren ondorio dira, honelako ereduak jasotzen baititugu. Komunikabide gehienetan aurkezten zaizkigun emakume eta gizon ereduak edo harreman mota begiratzea aski da horretaz jabetzeko.

Eta zuek eredu horiei aurre egin nahi diezue, ezta?

Gure helburua hau guzia hankaz gora jartzea da. Jendarte goxoagoa nahi dugu, harreman aberatsak dituen jendez osatua. Pertsona oso eta askeak, nahi duten esparruetan garatuko direnak eta ez bere sexuak adierazten diona, adibidez. Guztion edertasun anitza baloratzea desio dugu, bere zabaltasun osoan. Ezberdintasuna eta anitzasuna baloratzea, aberastasun moduan ulertzea. Ho-

rretarako, egituretan eragin behar da lan politikoa, alegia. Jendarte eredu sustraietatik aldatzeko borrokatzea ezinbestekoa da. Aldaketa horretan osagarri eta elikagai izan nahi du **Harremonakek**. Gure abiapuntua zera da: norbere burua maitatzea eta ingurukoak zein ingurua bera errespetatzea eta baloratzea. Honela, harreman aukeratuak eta orekatuak izango ditugu. Lasaiago bizi eta onartuak eta maitatuak sentituko gara. Horixe da guztiok behar duguna ondo bizitzeko eta jendarte parekide, sendoa osatzeko. Disfrutatzea aldarrikatu nahi dugu, ondo pasatzea eta plazera bilatzea. Bakotzaren ardurak eta mugak zainduz, noski.

Baina horretarako, inertzia asko gainditu behar dira...

Hau guzia lortzeko, nahitaezkoa da guztiok jasotzen dugun entrenamendua positibo bilakatzea... Eta gazteeikusten dituzten ereduak ezbaian jartzearekin batera anitzasuna aurkeztea. Anitzasuna, jendarte antolaketan, harremanetan, elkarbizitzan... bikote errromantikoari kritika ere garrantzitsua da.

Zer esan nahi duzue bikote erro-mantikoari kritika diozuenean?

Ba, hasteko, bikotea aukera bat dela. Gure imaginarioan zoriontasunaren gotorleku moduan azaldu zaigu heriotzak banatu arteko bikotea. Honen adierazle zera da: bikote bat bantzen denean porrot moduan bizitzen dugula. Gainera, gehienetan bikote heterosexuala, monogamoa, elkarrekin bizitzen dena, seme-alabak dituena e.a. irudikatzen dugu. Herentzian jaso dugun bikote ereduak elkarren menpeko diren pertsonek osatzen dute eta honek kalte handiak ekarri ditu, esaterako, emakumeen kontrako indarkeria. Arazo larria da, oso. Gaia zabala bada ere, bikote barruan gertatzen dena ulergaitza da. Gure ustez hiru osagai nagusi ditu: jendarte indarkeriazalea, sexismoa eta bikote erromantikoa. *Harremonakek* hiru osagai horiei egorra ematen die. Gainera, "emakumeen kontrako indarkeria gaztea da", hau da, gero eta bikote gazteagotan ematen da, datuak kezkagarriak dira: azken hiru urteetan (2007-2009), Erkidegoan, 30 urtetik beherako emakumeen 3.000 sala-

keta izan dira, gai honekin jasotako salaketa guztien %34, alegia. Beraz, nabarmena da gazteekin prebentzio lana egiteko premia.

Zorionez, gure jendartean gero eta aniztasun gehiago azaltzen da, baita bikote ereduetan ere eta guk horixe erraztu nahi dugu. Bikotea eta bizi-modu antolaketa bera pertsona oso eta askeen arteko tratuan oinarritzea nahi genuke.

Zeintzuek osatzen duzue Harremonak lan taldea?

Taldean oso gustura gaude, tratu onak gure artean ere sustatzen bai-titugu. Lanak energia asko eskatzen du baina eman ere ikaragarri ematen digu. Lan taldean orain lau kide gara, eta ilusio handia dugu. Bi emakumek eta bi gizonek osatzen dugu taldea. Guztiak beste talde eta saltsatan ibiliak gara eta feminismoan, gizontasunean zein sexologian adituak gara. Sortzaileak eta ikasteko sekulako gogoarekin, horretarako aukera paregabea eskaintzen digute gazteek. Eta hori, ikaragarri eskertzen dugu.



Talde bat saio batean...

Nola gauzatzen da egitasmoa Hernanin?

Hernanin indartsu doa, hirugarren ikasturtea dugu dagoeneko eta egitasmoa osatzen eta sendotzen ari da etengabe. DBHko ikastetxe guztietan aritzen gara, Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailak sustatzen du egitasmoa eta ikastetxeei eskaintzen die. Ikastetxe bakoitzak erabaki du orain arte zenbat taldekin arituko garen, zenbat orduz e.a.

Gazteekin ikastetxeetan gelan bertan aritzen gara aurrena, 2 orduko hainbat saio eginez. Bertan, jolasak eta dinamikak izaten ditugu lagun, bizi penetatzik ikasteak merezi duela badakigulako. 2 bideratzaile joaten gara saioetara eta horrek aukera ugari ematen dizkigu ereduekin jolasteko, behar duten arreta eskaintzeko...

Eskuhartze guztiak ikasgelan bertan al dira?

Ez. Aholkularitza saioak ere egiten ditugu ikasleekin, banaka edota talde txotan bideratzaile batengana joateko aukera eskaintzen zaie. Oso potentea izaten da, beraien kezkak, zalantzak, iritziak e.a. azaltzen dizkigute. Gai garrantzitsuak ateratzen dira: hainbat familia egoera (batzueta oso zailak eta gogorrak), sexualitatea, plazera, lagunarteko harremanak... Gure saikera nagusia, gaztearen konfianza azaltzea eta elkarrekin pentsatzea izaten da. Aukerak eta konponbideak ikusten laguntzea, alegia. Guztiontzat lasaiagarri eta goxagarria izaten da. Sa-

rritan hainbat arazo bideratzeko aukera paregabea izaten dugu esku artean.

Eta ikastetxetik at, egiten al duzue zerbait?

Aurten, estreinakoz aholkularitzak herri mailan egiten hasi gara, horretarako premia ikusi baitugu azken urteetan. Batetik, aholkularitza aukera hori gazzte guztiei zabaltzeko eta bestetik, kasu askotan jarraipena eskatzen duelako. Hainbat gai oso mingarri edota intensuak izan daitezke eta bideratzen hasi ondoren premiazkoa da jarraipena emateko aukera eskaintza. Bai sarean baita pertsonalki ere. Azken finean, konden da guraso eta irakasleak ez diren beste heldu batzuk erreferentzia izatea. Guk eta beraiek askoz ere askatasun gehiago sentitzen dugu elkarrekin.

Ze adinetako gazteekin ibiltzen zarete?

Hernaniko gazte mordoa ezagutzen dugu dagoeneko. Je, je! Bai, kalean ere sarritan elkar ikusten dugu eta pozgarria izaten da. Orain arte 13-16 urte bitarteko gazteekin aritu gara eta egia esan Hernaniko gazte gehienekin aritzen gara. Iazko ikasturtean 400 gazte inguruekin aritu ginen. Horretaz gain, garrantzi handia ematen diogu irakasleekin ere saioak egiteari, beraiek baitaude urte osoan zehar talde horiek. 2009-2010ean 39 irakaslerekin egin genituen saioak. Azkenik, gurasoak. Gurasoena heltzea oso garrantzitsua da, baina ez da erraza suertatzen haiek bilerak egitea. Jakin badakigu egungo bizitzan zeregin gehiegi izaten ditu-

gula, deialdi eta eskaintza pila. Halere, badakigu pixkanaka, egitasmoa ezagutaraztearekin batera, parte-hartza hobetuko dela. Gainera, gurasoentzat ere pertsonalki aberasgarriak dira saio hauek, gure harremanez hausnartzeko eta elkar trukerako aukera polita baita. Saioak guztientzat aberasgarri izatea da asmoa eta, nola ez, ondo pasatzea.

Zer azpimarratuko zenuke gazteen errealitatean?

Gazteak krixtonak dira, gaitasun eta abilezia ugari dituzte. Irribarrea eta emozioa ateratzen zaigu haienkin pentsatzean. Zaitasunak ere izaten ditugu! ez pentsa. Dena aberasgarri.

Beraien lekuan jarrita, presio gehiegi jasaten dituztela iruditzen zaigu: fisiokoak, akademikoak, kirolean, lagunartearen... Bai, presioak guztiok ditugu, gehiegi, eta horiek arintza dugu helburu. Bizimodu antolatuegia dutela dirudi, denborarik ez dutela diote, adibidez, kalean ibiltzeko.

Bestalde, guztiontzat komenigarriak diren hainbat arduratan gehixeago eskatzea komeni dela iruditzen zaigu. Adibidez, etxeko eta zaintza lanak edota beraien bizitzari buruzko hainbat erabaki hartzea.

Beldurren katea barneratuta dute: "ez badut ikasten, ez dut lanik izango, ez dut dirurik izango, porrota...". Egia da egiten dugun orok dituela bere ondorioak baina bizitza honetan bada den-

... jolasak eta/edo dinamikak lagungarriak dira Harremonak egitasmoaren helburuak lortzeko.



bora gauzak berbideratzeko. Egiten dutenaren erantzule direla sentitza komeni zaie, ardurak hartza. Bide beretik, disfrutatzeko eta aske izateko.

Beraientzako konfiantza jarriz gero ja-rerra ona azaltzen dute gehienetan. Pertsona osoak dira eta beraiekin parez pare jartzea eskertzen dute.

Gazteek presio handia izaten dutela aipatu duzu, eta askotan presio hori euren taldekieen aldetik dator zuen zuzenean. Demagun 15 urteko alaba bat dugula eta, bere lagun taldeko beste neska batez hitz egiten hasita, "zigin" eta "puta" hitzak erabili dituela. Zer esango diogu?

Lehenik eta behin esan, suerteko garela, gure alabak konfiantza hori baduelako guri lagunen inguruko us-teak azaltzeko, beraz, konfiantza hori eskertzea garrantzitsua da. Gure alabak sentitu behar du bere iritziak eta bizi-penak garrantzitsuak direla, arreta eskaintzen diogula eta gureek ez dutela bere iritziek baino garrantzi han-diagorik.

Argi dago ordea, adin tarte honetan bereziki gordinak izan daitezkeela lagunen arteko harremanak eta estereotipoek min handia eragiten dutela. Horrela, sexismoaren eraginez oso desberdin baloratzen da jarrera bera mutil edo neska batek izanez gero. Mutilak asko ligatzen badu arrakastatsua izango da, eta neska "puta", "guarra" edo "errex". Balorazio bikoitz horren inguruko hausnarketa egitea garrantzitsua da, eta horrekin batera, azpi-marratuko genuke norberaren askatasunak daukan garrantzia eta modu honetako kritikek zenbat mugatzen duten askatasun hori. Baino hori guztia ulerkortasunez egitea garrantzitsua da, kulparik sortu gabe. Gure alabak inguruan ikusitakotik ikasi ditu jarrera horiek eta bestelakoak ikusten baditu ikasi ditzake. Beraz, elkarren babesak, ulermenak eta laguntzak duten garrantzia transmitituko diogu, batez ere berarekin dugun harremean,

bere iritziak eta nahiak errespetatuz, pertsona oso gisa hartuz.

Beste adibide bat jartzearren, gure semeak oporretan gustura jantzi du izebak oparitutako kamiseta koloretsua. Eskolako lehen eguna iritsi orduko negarrez etorri da eta kamiseta amorrutz kendu du, gehiago ez duela jantziko esanez. Zer egin?

Adibide hau egunerokoa da oso mutilen bizimoduan. Mutilen estereotipoak ikaragarri estuak dira, ezin dituzte kolore edo marrazki batzuk dituzten arropak jantzi, ezin dute negar egin eta borrokan aritu beharra dute taldean beraien tokia irabazteko. Mutilen estereotipo gogorrak indarrean jarraitzen du eta guzti-guztiekin asko sufritzen dute estereotipo hori betetzeko. Horretarako jasotzen duten entrenamendua ezinbestekoa da beren gizatasuna zapaltzeko, beren nahien gainetik mutilek gizarte honetan bete behar duten rol zapaltziale eta dominatzalea ezartzeko. Kasu honetan, garrantzitsua da semeari mai-tasuna ematea, den bezala maite dugula gogoraraztea eta berak hori sentitzea. Bere nahiek eta gustuek duten garrantzia berrestea eta bere nahiak errespetatuak izan daitezzen lagunduko diogu. Agian gogorregia egingo zaio gelakideen aurrean kamiseta hori janxta, baina guk eskaini ahal dizkiogu kamiseta hori janzteko aukerak.

Aurrerantzean, ze ibilbide ikusten diozue egitasmoari?

Aurrerago esan dugun bezala egitasmo bizi bizia da eta Hernanin aurrerapauso sendoak ematen ari da. Bide horretan jarraitzeko baditugu bi ildo nagusi:

1. Beste adin tarte batzuetan ere aritzea, bereziki LHko 6. mailakoekin aritzeko gogoa dugu. Ziklo aldaketa datorkie eta sarritan ikastetxe aldaketa ere bai. Garai honetan gorputz aldaketa garrantzitsuak izaten dituzte neska-mutilek, ume izateari utzi eta mundu oso bat irekitzen zaie. Beraien harremanek ere garapen intentsuak izaten dituzte. Beraz, momentu paregabea da tratu onak sustatu eta sexualitateaz aritzeko. Sexu heziketako egitasmo askotan ematen zaio lehentasuna adin tarte honi eta Harremonak lan taldekoak ere irrikaz gaude pauso garrantzitsu hau emateko.
2. **Plax! Plazera plazara egitasmoarekin osatzera gatoz Harremonak. Batetik, sare sozialtan murgilduko da Harremonak. Gazteentzat sare sozialak harremanetarako eta mundu ikuskerarako baliabide esanguratsuak dira. Beraz, bertan egotea ezinbestekoa da.**

Bestetik, ikastetxeetan landutakoa herri mailako lanarekin uztartzea oso garrantzitsua da. Beste herri eta hirietako esperientzia aztertzen aritu gara eta nabarmena da gazteek lokal propioa behar dutela. Aholkularitzaz gain, bertan haien aisiaidetan kalitatea izateko eta hortik eragiteko aukera paregabea ematen baitu.

Lokal honen kokapen egokia Berdintasun Etxearen barruan da, Berdintasun Kontseilua azken urteetan aldarrikatzen ari den ekipamendua. Bertan, emakume taldeak, talde feministak, gizon taldeak, Jabetze Eskola, Berdintasun Kontseilua eta abarrekin batera arituko lirateke. Talde hauei elkarbizitzak se-kulako indarra emango lieke, elkarlana ahalbidetu eta antzezoak diren beste egitasmoekin sarean lan egiteko aukera emango lieke. Gazteek elkarlan horretan parte hartzeak ikaragarri erraztuko lituzke Harremonaken helburuak. Bestalde, Berdintasun Etxea herritarrentzat erreferentzia garbia izaten da hainbat egoera, premia eta desiori erantzuna emateko. Honela, guztion artean indarkerie eta sexismoei, hainbeste sufri-mendu eragiten duten bidegabekeriei, egurra emango diegu. Premiazko lana dugu eskuartean eta apustu sendoak egin behar ditugu. Hernani herri oso egokia da horretarako. Guztion artean lortuko dugu tratu onak sustatzea, plazera elikatuko dugu. Azken finean, dagoeneko egiten den lanari emaitza askoz ere oparoagoak ateratzea supo-satzen du. ■

Zabor bilketa Hernanin azken ehun urtean:


zaborra atez ate biltzetik egungo atez ateko
sistemara gaikako bilketan sakonduz.

Olatz Urrutibeaskoa

Oro har hitz eginda, ia esan beharrik ez dago, zaborra biltzeko sistemen bilakaera industriaren eta gizartearen bilakaerarekin batera joan dela, eskuz esku. Industria modernorik gabeko gizarteari zabor bilketa jakin bat zegokion, eta industria moderno gero eta teknifikatuagoa duen gizarteari araberako zabor bilketa dagokio, egun gure inguruan ezagutzen duguna.

Guk hemen oso azterketa mugatua egingo dugu, mugatua hiru aldetatik. Hernaniko udalerrira mugaturik, denboran, azken ehun urtekoan erreparatuko dugu gaingiroki; industrien, lantegien hondakinak bazter utziko ditugu; eta gai honetan Hernaniko herrian udalak izan duen parte-hartzera mugatuko gara gehienbat. Hau gehiago da pintzelkada edo zertzelada bilduma bat historia zehatz-mehatz bat baino.

Abiatu baino lehen, aurreratu dezakegu badagoela antzekotasunik duela ehun urteko zabor bilketaren eta egungo atez atekoaren artean, baina aldeak ere handiak dira. Gaur egun herritarra kontzientziatuago dago hondakinen arazoaz eta lankideago ageri da. Etorkizunean ere mantendu beharrekoa: herritarren kontzientzia benetakoa, kontsekuente izatera bultzatzen duena.



Dakigunez, XX. mendearen hasiera arte ez zen Hernanin hondakin bilketa sistematikorik egiten. Lantegiak alde batera utzirik, etxeetan sortzen ziren hondakin ohikoentakoak ziren: janari hondarrak, hildako abereen gorpuzkinak eta animalien gorotzak. Ez zen plastikorik pilatzen etxeetan. Kalean bizi ziren herniarrek sukaldeko suan erretzen zitzuten hondakin organikoak, baserritarrei ematen zizkieten, edota zabarrenek edo ez hain txukunek kalera botatzen zitzuten edo ibai eta erreketara, eta horrela kanporatzen eta desagerrazten zitzuten, bistatik behinik behin.

Kaletarrengandik baserritarrengana etorri: zabor organikoa ganaduari jaten emateko erabiltzen zuten eta lurra ongarritzeko, bestea beste.

Ildo horretan, 1905ean hain zuzen, Udalak lur sail txiki bat eroi zuen Mandazubi aldean —Bakero baserriaren lurretan— kale garbiketaren ondorioz bildutako simaurra bertara eramateko.

Guk artxiboan egiaztatu ahal izan du gun hondakin bilketarako lehen udal kontratua II. Errepublika garaikoa da, hain justu 1934koa. Bertan, Florida auzorako hondakin bilketa kontratatu zen (egungo tren geltoki inguruko auzorako). Kontratu hartan garbi agertzen da hondakinen aprobetxamendua kontratistentzat izango dela.

Kontratuaren baldintza agiriaren artikulu batean dio bilketa zerbitzua egunero goizeko 7etatik 8etara bitartean egingo dela, eta bildu ondoren utzi berriz: errepidetik 20 metrora, biziguneetatik 100 metrora eta edozein etxadietatik 25 metrora.

Pixkanaka delako kontratua Florida auzotik gainerako auzoetara zabaldzen. Kontratu horien bidez, kale garbiketaren ondorioz sortutako hondakinen eta etxeetako bilketa kontratatzentz dira. Biltzen diren hondakinak, hasiera batean behintzat kontratisten esku geratzen dira, baina badirudi zerbitzuak ez zuela mozkin handirik sortzen.

Nola egiten zen bilketa? Biltzailea gurdidi batekin etxez etxe eta atez ate joan ohi zen. Gurditxoak txilina ohi zuen etorrera iragartzeko. Txilin hotsera herritarrek ateratzen zitzuten hondakinak (janari hondarrak gehien bat) kaxa eta ontzietan. Kale garbitzaileek egunean bildutakoa puntu batean uzten zuten eta handik biltzaileak jasotzen zuen biharamunean.

Hasiera batean etxeetan bildutakoa animalien janaritarako eta baratzetako ongarri gisa erabiltzen ziren. Aurrerago, etxeetan sortzen ziren hondakinei kale garbiketarenak batzen zitzaizkien, eta horiek pilatzeko Udalak “simaurtegiak” zeritzanak egiten zituen.


Kontuan hartu behar da garai hartan motor ibilgailuak ez zeudela zabaldau eta garraio modu erabiliena gurdia zela.

Denboran aurrera eginda, jada 1950eko hamarkadaren azken urteetan, autoak eta ibilgailuak artean urri baina ugaltzen ari zirela, eta batez ere Espainiako hainbat eskualdetatik etorkin salmala etortzearekin herria nabarmen hazi zen garaian, zabor bilketak premia berriei aurre egin behar izan zien, eta horretarako herria hamar bilketa esparrutan banatu zen.

1959an egindako kontratuan jada ibilgailuak aipatzen dira. Artean ez da ezer esaten hondakinak nora eramango diren. Badirudi ordurako bazegoela zabortegi bat Ibarluze-Lastaolan, zubi zaharraren inguruan, Lizarraga baserriaren lurretan.

Zehaztapen garrantzisko bat egin behar da: obra-hondakinak eta industria-hondakinak ez ziren hondakintzat hartzen edo behintzat bilketa zerbitzutik kanpo gelditzen ziren.

Garai hartan beraz, biltzaileek bildutako hondakinak Lizarragako zabortegira eramaten ziren, eta han zabortegia zegoen lur sailaren jabe zen baserritarren esku geratzen ziren. Hark osasun arrazoiengatik zaborrak kimikoki tratatu zitzakeen, suarekin erraustu



edo beste lekuren batera garraiatu. Hitzetan zioen: "por razones sanitarias podrá disponer de las basuras para su tratamiento químico, destrucción por el fuego o transporte a lugar distinto del señalado".

1959tik 1964ra etorri, Lizarraga baserriko jabeak, Jose Garayarrek, uko egiazion hondakinak bere lur sailean jasotzeari. Handik aurrera, zabortegi berria Akarregin, Zumadi baserriko lurretan (Carmelo Alcorta Oyarzabalen lurretan) prestatu zen.

1964ko kontratuaren jada udalerria ez da 10 bilketa esparrutan banatzen. Orduko baldintza agiriaren arabera, herria bitan banatzen da, eta bi biltzaile taldeek aldi berean bi ibilbide eginez jaso behar zituzten herrian sortutako hondakinak.

Artxiboan begiratu hutsez, hots, idatzia soiliak miaturik, ezin da zehazki jakin noiz arte aritu ziren hondakinak Akarregiko zabortegira eramaten. Kontua da zabortegi hari Eplerrekako ingurukoak jarraitu ziola 60ko hamarkadaren bukaeran, han Udalak zuen lur sail bat erabiliz.

Eplerrekako zabortegiari dagokionez, arazoak sortu zituen. Itxura guztien arabera, hondakin pilaketa errepide bazte-

rrean egiten zen eta pixkanaka zaborra errepidera zabalduz joan zen, kamioa inbadituz eta estutuz. Hori nahikoa ez zela, 1968 aldera, zabortegian sutea gertatu zen.

1970eko hamarkadan, Eplerrekako zabortegia utzi eta Larregain aldera hasi ziren hondakinak eramaten. Han pare bat laba eraiki ziren hondakinak erretzeke. Zaborgi horixe izan da Hernanin erabili izan den azkena; handik aurrera Hernaniko Udalak bere hondakinak San Markos Mankomunitateko zabortegira eraman izan ditu, egun San Marko Mankomunitatea.

San Marko Mankomunitatea 1970ean sortu zuten Lezok, Pasaiak eta Errenteriak. Hernaniko Udalak hondakinak San Markora eramaten 1988 urte aldera hasi zen; hasieran, Larregainera joatea posible ez zenetan (eguraldi oso txarra, gorako errepidean arazoak...), eta 1990etik aurrera modu iraunkorrean, horren ordainetan kanon bat ordainduz mankomunitateari. Eta, azkenik, 1994an, Hernaniko Udalak San Markoko kide izatera igaro zen.

Irakurleak dakien bezala, azken hogei urtean hondakinen bilketa sisteman al-daketa gehiago gertatu da aurreko ehun

edo berrehun urtean baino. 1990eko hamarkadan hedatu zen gaikako hondakin bilketa eta haren ezaugarri ikusgarriena, iglu itxurako edukiontzia. Hasiera batetan, iglu berdeak, beira biltzeko. Gero urdinak, papera eta kartoia jasotzeko eta, azkenik, ontzi arinetarako iglu horiak. Eta horiez gain, jakina, birziklatu ezin dena nahasirik biltzeko edukiontzia.

Kolore eta gai ezberdinetarako edukiontzia hedatze horrek jarraipena izan du XXI. mendeko lehen hamarkadan, lehenbizi, 2000. urtearen bueltan pilak biltzeko ontzi hori txikiekin, eta 2006an, oihalak biltzekoekin. Ildo beretik, 2007az gerrotik, etxeetan sortzen diren hondakin arriskutsuak biltzeko furgoneta ibiltaria igarotzen da mankomunitatea osatzen duten herrietatik.

Gaingiroki aipatzen ari garen azken hogei urteko progresio bizkor honen katebegi axola handikoa 2008tik aurrera geratu da. Mankomunitateko herri batzuk pauso bat harago joan nahi izan dute, bilketa datuek erakusten zuten birziklatze tasa apalak gainditzeko grinak hartaturik (mankomunitatea osatzen duten herrietako batez besteko birziklatze tasa %32): Usurbil, Hernani eta Oiartzun, hurrenez hurren.




2009ko apirilean Usurbilek jarri zuen atez ateko hondakinen bilketa abian, eta emaitzak oso onak izan dira: hastetik beretik %80tik gorako birziklatzea. Ondoren, Hernani etorri da, zehazki 2010eko maiatzaren 9an abiarazi due-la atez ateko bilketa sistema berria, eta lehen 3 hilabeteko emaitzak, halaber, oso onak izan dira, eta Oiartzunen bes-te horrenbeste, Hernani baino hilabete beranduago ekinik. Hiru herrietan egun birziklatze tasa %80tik gorakoa da, eta atez atekoaa hasi aurretik %30 inguru-koia.

Azken hamarkadetan etxeetan sor-tzen diren hondakinen ezaugarriak eta propietateak aldatuz joan dira. Hasiera batean hondakin horien osagai nagusiena gai organikoa bazen ere, janari-hondarrak eta simaurra eta gorotzak, gaur egun asko dibertsifikatu da. Guztioi datozkigu burura plastikozko pol-tsak, azken urteetan saltoki eta mer-kataritza-gune handiekin batera haeik izan duten hazkunde esponentziala.

Kontsumo gizartean sartuak gara bete-betean eta sortzen ditugun hondakinak horren araberakoak dira: organikoa, ontzi arinak eta plastikoa, paperak eta kartoia, eta birziklatu ezin daitekeen errefusa.

Atez ateko sistemak birziklatze tasa ia hirukoizteaz gain —%32tik %82ra—, herritarren kontzientzia astintzen du beste ezein sistemak baino bortizkiago eta iraunkorkiago. Asteko egun bakoi-tean gaika pilatutako hondakinak atera beharrak, noiz organikoa, noiz plasti-koak eta ontzi arinak, noiz papera eta kartoia eta noiz errefusa, kontzientzia pizte bortitza eragiten du: erruz sortzen ditugun hondakinak arduraz sailkatzen eta birziklatzen ahalegindu ezean, bihar-ko belaunaldiei hondakindegia toxiko itzela utziko diegun kontzientzia garbia elikatzen du.

Kontzientzia hori piztua duten herrita-rek ez dute atzerapausorik eta atzerabueltarik onartuko, eta bestelako interes pribatu eta alderdikoak oztopoak jar-tzen saiatuagatik, etsi-etsirik nago atez ateko sistema hedatz joango dela XXI. mendearen, hedatz eta hobetuz, gero eta birziklatze tasa goragokoekin, he-rritarren geroz gehiagoko kontzientzian bermaturik. ■



Galarreta Jai-Alai

Erremontearen katedrala

Urko Apaolaza Avila



Pilotazale bati baino gehiagori bihotz zola ilunduko zitzzion urte hasieran albiste txar batek prentsara salto egin zuenean: "Galarreta ixteko zorian". Erremontearen Katedrala deiturikoa gestionatzen zuen enpresak (Galarreta, S.L.) erabakia hartua zuen jadanik, berrogei urteko ibilbidearen ondoren martxoaren 31ko jaialdia izango zen azkena: lau partidu arratsaldeko lauretan hasita, egungo erremontista oneen erakustaldia, eta gero kito, akabo erremontea. Uharteko Euskal Jai Berri frontoientzat ere destino berdina zuen aurreikusita enpresak. Juan Antonio Ercillak, Galarretako fundatzailleetako baten semea eta Galarreta, S.L.-ko gerenteak, honela deskribatu zuen panorama prentsaurrean: "Apustuak eta sarrerak jaitsi egin dira, krisiak guri ere eragin digu". Baino Ercillak leho zirrizko bat irekita utzi zuen eta

hainbat datu eman zituen optimista izateko: enpresak ez zuen zorrik utzi eta pilotari plantilla inoiz baino gaztea-goa zen. Esponsor berri bat aurkitzeko amua jarrita zegoen.

Aste batzuk beranduago jakin zen berri ona: Maxi Samper enpresari nafarrak bere gain hartu zuen bi frontoien gestioa eta Galarreta birmoldatzeko asmoa agertu zuen, erremontea bizi-berritzeko helburuz. Pixkanaka, jende gehiago sartu zen proiektu horretan, Oriamendi 2010 enpresaren bidez, eta Galarreta-ko frontoia berriz ireki zen 2010eko San Joanetan, lurra, harmailak, pintura, sareak... kantxa guztia aurpegi berrituk zuela: "Ederra geratu da. Frontoi amerikarra dirudi" esan zuen Koteto Ezkurra txapeldun handiak Galarreta zapaldu orduko. Izan ere, markagailu elektronikoa, klimatizazioa... aire modernoa

du oraingo katedralak, eta horrez gain apustu sistema ere aldatu da, gutxieneko apustua jaitsi eta sarrera merkeagoekin: "Azkenean horrela sortuko da giroa frontoian, izan ere, alper-alperrik ari gara, ez badugu frontoia betetzen edo jende gehiago bertara erakartzan", adierazi zuen KRONIKAn Joxe Mari Barrenetxea bazkide hernaniarrak.

Beraz, txanpona botata dago eta etorkizunak esango du gorri edo urdin ateratzen den, baina erremonte zaleek itxaropentsu heldu diote aro berriari. Dena den, pilota modalitate honen historia ikusiz gero, ibilbide irristakorra izango dela pentsa liteke. Izan ere, Juanito Moya nafarrak pilotarako tresna "arraro" hori asmatu zuenetik mendea baino gehiago pasa da, eta erremonteak gorabehera ugari izan ditu denbora horretan.


1904: Moika-k erremontea asmatu zuen urtea.

Juanito Moya Moika-k sekretuan asmatu zuen erremontea 1904an. Ordura arte eskularuekin jokatzen zuten pilotariek Iruñeko "Juego Nuevo" frontoian, baina Moika ez zen trebea horretan eta erreminta nola hobetu zitekeen pentsatzen hasi zen. Horrela okurritu zitzaion Frantzian *blé-ra* jokatzeko erabiltzen zen txistera edo zestua eskularruari egokitzea. Tolosara jo zuen, Elizalde abizeneko zestugileari zestu berezia egiteko enkargatu zion, eta hortik gutxira eskuetan zuen jada etorkizuneko "erremontea". Egun batzuez frogatu zuen, frontoian bakar-bakarrik zela, eta ondoren bere aurkariei desafioa bota zien. Ez zien beldur gehiegi eman gure Juanitok, *txisme* arraroa ikustean barrez hasi baitziren beste pilotariak. Baina lehenengo sakean sorpresaz harrapatu zituen guztiak: pilota aise jotzen zuen, indar gehiagoz eta eskumuturrari probetxua atereaz. Erraz irabazi zuen Moika-k partida hura eta geroztik pilotari guztiak hasi ziren erremontea erabiltzen jokorako.

1909an Iruñean Euskal-Jai frontoi mitikoa inauguratu zenerako erremontea erabat gailendu zitzaion eskularru tradizionalari eta hurrengo hamarkadak modalitate honen urrezko aroa izango dira. Juanito Moyaren asmakizuna laster zabalduz beste frontoietara, Donostiako Jai-Alain erabiltzen hasi ziren, baita Moderno frontoian, Madrilekoetan... Jesús Abrego izan zen urte horietako erremontista ezagunenetakoa, baina bazeuden figura gehiago, Iturain, Salsamendi, Arano edo Juriko kasu. Gerra zibila parentesi beltza izan zen; pilotari asko ihesi eta beste batzuk hilda suertatu ziren, Jose Juriko, esaterako, Hernaniko hilerriko paretaren kontra hil zutela uste da, Galerna itsasontzian harrapatu baitzuten, Aitzol apaiza eta beste zenbaitekin batera.

1940ko hamarkadan erremonteak indartsu ekin zion berriz ere, datu batzuk horren erakusle: Donostiako Urumea frontoiko koadroa 16 erremontistak osatzen zuten, Iruñeko Euskal Jaian 30 zeuden eta Madrilgo

Jesús Abrego (argazkia: manista.blogs.com).



Recoletos frontoian 20 profesional aritzen ziren erremontean.

Erremontearen krisi handitik Galarretako mirarira.

Hamaika urteko semea eraman nahi zuenarena. Gipuzkoan bizi zen leitzar batek, hamaika urteko semea eraman nahi izan zuen urte batean. Elkartea, bidea gogorregia izan zitekeela aurreikusiz gazteegia zela esan zion aitari. Taldearekin semea ezin zuela eraman ikusirik, taldetik minutu gutxi batzuetara egin zuen ibilibidea bere kontura.

Erritmo gogorra nahi huen, tori erritmoa... Urtero, taldearen buruan mendizale bat joan ohi da pausua neurutz. Urte batean, izena eman zuenetako batek, bere burua bestea baino indartsuagoa zela erakutsi nahian bide guztia taldeburuan zenari pasaz aritu zen. Azkenerako, taldeko burua zena aspertu eta Urepel mendiaaren ondoan dagoen mugarrir beltsa inguruan ea Altzadi mendira igo nahi zuen galdetu zion. Honek baietz esan eta han abiatu ziren biak. Ibilbideko buru zenak izugarrizko erritmoa jarri eta lehertuta utzi zuen bestea. Handik aurrera ez zuen taldeburuan jartzeko gogo askorik eduki.

Leitzatik atera eta kotxeak taillerera. Hasierako urteetan Leitzara iritsi ostean, kotxeetan berriro Leitzalarreara joan eta elkartetik emandako baziaria han bertan baziak zentzen. Honek arazo handi bat ekarri zuen. Izan ere, izan ziren bueltakoan kotxea irauli zutenak, beste batzuek bazterra jo... hau ikusirik hurrengo urtean autobusa hartzea erabaki zen.

A ze lo-kuluxka bustia! Tardon baziak genuen batean gehiegizko edan zuen batek, etxearen bertan belarra gordetzen zuten lekura joan eta

bertan lo egitea erabaki zuen. Beranduxeago, laguna han lo zegoela ez ze kien taldekide bat, mahaian zegoela, pixa egiteko gogoa sartu zitzzion. Komuneraingo joateko gogo askorik gabe, belarra pilatua zuten goialdetik pixa egitea otu zitzzion. Hau lo zegoenaren kalterako izan zen, goitik behera busti baitzuen!

Bertso saioa egin zenekoa. Beste batean, Berastegi ginela, plazan lehen solairu batean dagoen taberna batean, gurekin bertsoz ederki moldatzeten zen taldekide bat zegoen. Halako batean, non azaltzen da Anats urnietarra arratsalde pasa bertan. Gutako batek tentatu zuen hau eta hor sortu zen bat bateko bertso saioa bien artean, bata tabernako leihora aterata aurreneko pisuan eta bestea kalean gora begira!

Leitzako alkateak parte hartu omen zuenekoa. Urte batean, Nafarroa Eguna ospatzen zen egunean, baziak ostean han genbiltzan Leitzatik kalean bueltaka. Han ikusi genuen Pako Zelarain etxe bateko balkoian ezagunak zituen batzuen etxeen bisitan. Hau ikusita, gure taldekide batzuk pezetak botatzen hasi zitzazkion balkoira. Hor bukatu zen txantxa (gure ustez), baina hurrengo egunean, Diario de Navarrak festa horren informazioa ematen zuen lekuaren zera esaten zuen: "jende multzo batek pezetak bota zizkion balkoi batean zegoen Leitzako alkateari".

Belainoak guztiok itsutu gintuenekoa. Beste batean, itsua zen gazte batek bere lagun batekin eman zuen izena. Ohitura handia izango zuten mendirako, biak ala biak oso ederki moldatzeten baitziren mendian. Egun

horretan ordea, laino handia zegoen eta Leitzalarreara jaisten ginela aurreko zortzi izan ezik beste guztiek okerreko bidea hartu zuten. Hor ibili zen itsu gizajoa, bere gida zena ere lainoak itsutu zuenez, alanbre eta hesiak pasa eta pasa, noraezean. Hurrengo urteetan ez zen azaldu.

Toka txapelketak! Baziak eta gero, toka txapelketa jokatzen ari genen batean, han etorri zitzagun inguruko gaztetxo bat ea gurekin joka zezakeen galdeztuz. Ordu ederrean utzi genion jokatzen, guztioi irabazi baitzigan!

Beste batean, ordea, irlandar bat izan zen gerturatzen zena. Hari ere utzi genion jokatzen baina honek ez zuen abilezi berdina, gu bezain txarra zen eta ez zigun irabazi!

"Korrika" pasa zenekoa. Basa-Kabin jan genuen batean Korrika pasa zen guk baziak ostean. Oso giro polita jarri genuen, lekuoaren ondoan kilometro bat eta guzti eginez.

Nafarroa Oinezkoen negozioa. 1997ko ekainaren 1ean izugarrizko euritearen azpian joan ginen mendira. Ateratako guztietatik soiliak 17 iritsi ginen. Leitzara iritsi eta arropa ekartzen zuen autobusa ez zela iritsi konturatzen. Itxuraz, Andoainen uholdeak zirela eta, ezin pasatu zegoen. Gu sinestu ezinik, guztiz hoztuta, arropa lehorra beharrean ginen. Leitzan bertan, Nafarroa Oinezko kamisetak saltzen zituen denda bat topatu genuen. Haiek egin zuten negozioa, askok bertan erosia baitzuten desira zituzten kamiseta lehorra. ■

Sorbeltzak,

Hernaniko turista leialenak¹

Iñaki Sanz-Azkue

Hernaniko plaza. Maiatzeko egun eguzkitsu baten lehenengo argi-printzek zeraua urdintzen dute. Isiltasuna nabaria da kaxkoko kaleetan. Segituan, txistu fin baina zaratatsu batek isiltasuna hausten du. Zerura begiratu eta tamaina txikiko hegazti talde batek abiada bizian plaza zeharkatzen du kale Nagusira sartzeko. Sorbeltzak dira. Urtero bezala, Afrika urruna utzi eta bidaia luze baten ostean habia jartzera euren jaiolekura itzuli dira: Hernaniko plazara.



Marraskia: Ibai Goni

¹ Marrazkia, mapa eta argazkia: Sauvegarde et protection du martinet noir. Informations, conseils et recommandations à l'intention des propriétaires d'immeubles, locataires, communes et architectes. Ornithologique de Réadaptation. Service d'étude et de protection.

Egunero ikusten (eta entzuten) dugun ezezaguna.

Hernaniarron artean ehundaka urte daramazkien arren eta bere "udako etxea" plazan duen arren, herritar askok oraindik ez du bizilagun hau ezagutu ere egiten. Urtero, apirila bukaera, maiatzas hasiera aldera azaltzen da Hernani inguruan, hutsik egin gabe, eta abuztu bukaera arte egon ohi da gure artean. Pertsona askok enararekin nahasten badu ere, bere benetako izena sorbeltz arrunta da (gaztelerez: vencejo común). Izen zientifiko ere ez du zaila: *Apus apus*.

Gorputzaren itxura aldetik enara baino zertxobait handiagoa da, 17-18,5 cm-ko luzerakoa, eta paparra izan ezik gorputz osoa marroi edo beltz ilunekoa izan ohi du. Hegan egiteko modua ere ezberdina dute. Horretarako sorbeltzak airean mugitzeko igitai edo sega itxurako bi hego luze garatu ditu.

Baina bere hegan egiteko modua baino, Hernaniko plaza inguruan bizi den jende askok bere ahotsa da ezagutzen duena. Izan ere, gutako asko konturatu gabe, urtero-urtero uda aldean entzuten dugun kantu fin, zaratatsu eta monotono hori gure belarrietan sartu da, Hernaniko plazako kanpai hotsak edo eguneroko beste edozein soinurekin batera, kaxkoko bizilagun askoren buruan geratu delarik grabaturik.

Hirigunera egokitzen den hegaztia.

Sorbeltza Hernaniko plazan aurkitzea, ordea, ez da kasualitate hutsa. Bere bizileku naturala harkaiztiak badira ere, gizakiak eraikitako etxe eta eraikuntza zaharren teilatupeko zirrikitu eta zuloak gune aproposa dira euren habiak jartzeko. Hori dela eta, Hernaniko gune

ezberdinietan ez ezik, espezie hau beste hainbat herrietako etxeetan topatzea ere ez da zaila suertatzen.

Behin habia jartzeko etxea aukeratzen jarrita, ordea, ez du edozein aukeratzen. Aurrelik aipatu bezala, teilatupean zirrikituak dituzten etxeak behar izaten ditu habiak jartzeko, beraz, egun eraikitzen diren etxe gehienak ez ditu gustuko izaten. Honek arazo bat sortu du, izan ere, sorbeltzarentzako baldintza onak betetzen dituzten etxe gehienak zaharrak dira eta asko bota egin dira, eta hauen gainean etxe berria eraiki ohi da aurreliko eraikuntzaren arkitektura kontuan eduki gabe. Lan hauen ondorioz sorbeltzak kumeak jartzeko di-

tuen gune asko desagertu egiten dira. Hau saihestu nahian, Europa erdialdeko udalerri batzuetan (Suitza kasu...), eraikiko den etxe berrieta ere sorbeltzek kumeak jartzeko gune egokiak egon daitezten derrigortzen dute, espezieari eta hiriko biodibertsitateari ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

Baina hori gutxi balitz, sorbeltzari habia jartzen duen etxearen aurrean gune ireki bat egotea gustatzen zaio. Izan ere, sorbeltza hegalarri abila da eta behar duen jana (euli eta intsektu txikiak) hegan doalarik ehizatzen du. Hau guztia jakinda, beraz, ez da harritzekoa sorbeltzak Hernaniko plaza aukeratzea euren habia jartzeko.



Afrikatik Hernanira Saharako basamortua zeharkatuz.

Garbi geratu da beraz sorbeltzak Hernanira ugaltzera etortzen direla. Bainanondik etortzen dira? Zergatik?

Sorbeltzek negua Afrika hegoaldea eta Afrika tropikalean igarotzen dute. Han temperatura bikaina dute behar adina janari lortzeko. Udaberria gerturatzent hasten denean, ordea, sorbeltzaren benetako abentura hasten da, Euro-


para ugaltzeko gunera joateko migrazioa.

Sorbeltzak, bidaian zehar Afrika osoa zeharkatu beharko du Europara iristeko, Saharako basamortu amaigabea zeharkatuz eta bidean dituen oztopo guztiak gaindituz. Bainan behin Europa-
ra iritsita nora joan?

Hernaniko plazan jaio den sorbelta, beti bere jaiolekura, Hernanira, itzuliko da ugali-

tza apirila bukaera aldean. Bertan bere betiko bikotea topatuko du, izan ere, sorbelta nahiko animalia fidela da eta migrazioan zehar bikotearengandik aldentzen bada ere, Hernanira iristean urteroko berdinarekin elkartuko da kumeak edukitzeko.

Behin habia egin eta txita txikiak jaiota, gurasoek gogor egin beharko dute lan, kasu honetan hegan, euren kumeei janaaria emateko. Honetarako, orduak eta orduak igarotzen dituzte hegan.



Lo ere hegan egiten duen hegaztia.

Sorbeltzak berezitasunik baldin badu, hori bere hegan egiteko gaitasuna da. Izan ere, hegazti honek airean mugitzeko modua eta batez ere erresistentzia ia perfekzioraino garatu ditu eta lurrean ez denez apena egoten, bere hankak atrofiatuak daude. Hau dela eta, ia bizi osoa lurrik ukitu gabe ematen du. Beraz, ez da harritzeko pertsona askok Hernaniko sorbeltzak hegan bakarrik ikusi izana.

Batzuetan bakarrik, besteetan taldean, baina sorbeltzek euren bizi-ziklo osoa hegan egiten dute, habiratzea izan ezik. Elikagaiak lortzeko ahoa ireki- ta egiten dute hegan, batzuetan 100 km/h abiadurak ere hartzen dituztelarik. Euria egiten duenean, intsekturik ez dagoenez airean, leku urrunetara egiten dute hegan, kasu batzuetan kumeak aste bete ere euren habietan bakarrik utziaz. Horretarako helduak kapazak dira egun bakarrean 1.000 km ere hegan egiteko.

Baina hegazti honek dituen aparteko ezaugarrien artean, bitxienetarikoa hegan doalarik lo egiteko duen gaitasuna da. 1.000 m eta 2.000 metro arteko altuerara igotzen da zeruan gora eta bertan abiadura txikitu egiten du lo egiteko. Norbaitek pentsatuko du eta nola da kapaza bi gauzak batera egiteko? Egindako ikerketen arabera, sorbeltzak burmuinaren zati bat lo duen bittarean, beste erdia aktibo mantentzen du. Honela, nahiz eta hegaztia lo da goen, burmuina kapaza da gorputzari begietatik datorkion informazioa transmitematzeko eta honi esker, ez erortzeko edo talkarik ez egiteko adinako agin- duak emateko.

Bukatzeko, bada hegan burutzen duen beste akziorik ere, baina tira, irakurle gazteren batek irakur dezake zati hau eta ez gara detaileetan sartuko. Pentsatuko duzue zertaz ari naizen ezta?

Sorbeltza eta mundu mailako klima aldaketa.

Urteak aurrera doazen heinean klima aldaketaren ondorioak gero eta ikusgarriagoak dira gure planetan. Batzuetan, ordea, oso zaila suertatzen da zientzia oinarriztat hartuta, klima aldaketak gizakian edo ingurunean eduki ditzaken

eraginak neurten. Hau helburutzat hartuta, zientzialari asko mundu mailako temperatura aldaketak espezie askorengan eduki dezaken eragina neurten ari da.

Hegazti migratzaileetan aldaketa hauek sortuko dituzten ondorioak neurteko Europa mailako ikertzaile asko sorbeltzarekin ari da lanean. Baina, zein ezaugarri betetzen ditu sorbeltzak horrenbeste hegaztiren artean bera auke- ratzeko?

Urte asko dira gizakiak eta sorbeltzak elkar ezagutzen dutela. Hiri eta herrietako eraikuntzetan habia jartzeak sorbeltzekiko gertutasun sentimendu bat sortu du gizakiareneng eta hau horrela izanik, naturazale askok urteetan zehar hegazti honen etorrera-datak apunta- tu izan ditu. Esaterako, badaude ugal-gune jakin batzuetan 250 urteetan zeharreko sorbeltzen etorrera egunak apuntatuak dituzten pertsonak ere.

Datu pilaketa hau oso garrantzitsua da klima aldaketak hegaztien migrazioa atzeratu edo aurreratu dezakeen jakiteko, izan ere, beste espezie askotan ez dago aurretiko daturik, eta beraz, ez genuke informaziorik edukiko oraingo datuak aurrekoekin parekatzen.

Bestalde, sorbeltza espezie nahiko ugaria da eta iberiar penintsula mailan "interes bereziko" espezie moduan katalogaturik dagoen arren, oraingoz ez dago arriskuan. Bi ezaugarri hauak ere, sorbeltza klima aldaketaren ondorioak neurteko ikerketan erabiltzea errazten dute.

Hau guztia dela eta, sorbeltza, klima aldaketak migratzaile transahararia- reneng (hau da, migrazio luzeko espezieak) eduki dezaken eragina ikertzeko hegazti aproposa da.

Klima aldaketaren eraginak: itzuli- ko al da sorbeltza datozen urtee- tan Hernaniko plazara?

Ikerketa asko egiten ari diren arren, oraindik ez dago garbi aldaketa klimatikoak sorbeltzaren bizi-zikloan eduki dezakeen eragina nolakoa izango den. Itxuraz, sorbeltzak Afrikatik Hernanirako migrazioa noiz hasi jakiteko, egunaren eta gauaren luzerak hartzen ditu erreferentziatzat eta ez tempera-



turaren aldaketa. Beraz, nahiz eta klima aldaketaren ondorioz tenperatura beroagoak urteko lehen hilabeteetara aurreratu, sorbeltzak betiko data berdinetan aterako dira Afrikatik, izan ere, klima aldaketak ez du eraginik eguna eta gauaren iraupenean.

Baina arazoa Hernanin edukiko luke. Klima aldaketak egun beroak urtean zehar lehenago iristea eragiten badu, sorbeltzak Hernanira etortzerako elikagai gutxiagorekin aurkituko lirateke. Izan ere, orain arte sorbeltzak Hernanira irtisi diren garaia, intsektu gehien dagoen hilabeteekin bat egiten du eta beraz sorbeltzak kumeak edukitzeko behar duten energia hortik lortzen dute. Intsekturik ez egoteak, ordea, elikagai gutxiago egotea esan nahiko luke eta beraz, kume gutxiago edukitzea edo jaten emateko zaitasunak izatea eragingo luke. Horri Afrikako bizilekuetan gertatzen ari diren habitat suntsiketak gehitzen badizkiogu gauza okerto eginen da. Beraz, kasu honetan, sorbeltzaren etorkizuna beltza izango litzateke.

Badago, ordea, klima aldaketak espezieari onurak ekar diezazkiokeela ondorioztatzen duenik ere. Hauen arabera, tenperatura altuak aurreratzen badira, migrazioan zehar sorbeltzek elikagai gehiago edukiko luke eta eskuragarri eta gainera bidaian zehar egun eguzkitsuak euritsuak baino gehiago lirateke. Eguraldi onak migrazio prozesua aurreratuko luke eta ondorioz, energia gutxiago gas-tatuko lukete sorbeltzek Hernanira iristeko. Beraz, kasu honetan, klima aldaketak onerako eragingo lioke espezieari.

Zientzialariak, beraz, ez dira oraindik ados jartzen mundu mailako klima aldaketak sorbeltzarengan eduki dezaketen ondorioetan. Denborak esango digu gure bizilagunak Hernaniko plazako "udako etxea" utzi beharko duen ala ez. Guk, bitartean, hegazti bitxi eta zoragarri honek kaxkoko kaleetan gora eta behera egiten dituen hegaldi bikainetaz gozatzen jarrai dezakegu. Hala bedi. ■



Gogoratzen naiz lehengo amonen
zapi gaineko gobaraz
gogoratzen naiz lehengo amonaz
gaurko amaz ta alabaz
Joxei ta zuei mila zorion
miresmenaren zirrarez
ta amaituko dut txapel zati bat
zuek guztiontzat lagaz
gure bidea ez da errexaz
bete legez, juizioz, trabaz
Euskal Herriko lau ertzetara
itzuliko gara gabaz
eta hemen bildu degun indarraz
grinaz eta poz taupadaz
herri hau sortzen segi dezagun
euskaratik ta euskaraz

Maialen Lujanbio TXAPELDUN!

Bertsolari Txapelketa Nagusia 2009



Hernaniko motolagunak

Con el nombre de **MotoClub HERNANIKO MOTOLAGUNAK** se constituye en 2007, una asociación, sin ánimo de lucro, cuyos fines no son otros que constituir un club de amigos para desarrollar actividades —tanto en grupo como a nivel individual— relacionadas con el mundo del motociclismo. Sus fundadores son tres amigos, amantes de las motos (Iñigo Gallastegi, Ángel Gil y Alberto Arenales), que ya con anterioridad a la constitución de la asociación, organizaban salidas en moto; la idea era sociali-

zar y compartir con otros amantes a las motos, esas inquietudes y experiencias: *viajar en moto y poder dar la oportunidad de, a todo aquel que lo deseé, compartir con nosotros esa sensación que solo el que viaja en moto entiende; y dar a conocer nuestro pueblo por todos los lugares y a todas las personas con las que nos juntamos, promocionándonos y a la vez a HERNANI, en concentraciones por todas las comunidades autónomas del estado y, en ocasiones, en otros estados.*

Socios y simpatizantes de Hernaniko Motolagunak, durante una salida.



Con esa idea, llevan a cabo muy distintas actividades: excursiones turísticas en moto, salidas (también en moto) a eventos relacionados con el motociclismo como pueden ser concentraciones de motociclistas, carreras y/o campeonatos de moto GP, Super-Bikes, etc. Y además, tienen la idea de organizar exposiciones fotográficas, charlas y... otros relacionados con el mundo del motociclismo.

Así, organizamos varias salidas al año (de fines de semana ó a almorzar por la provincia) y además, participamos en eventos organizados por otros Moto-Clubs. En todas nuestras salidas buscamos ofrecer a los socios un precio ajustado (para los no socios el precio es algo mayor), siempre ofreciendo la mayor calidad posible en lo relativo a servicios y restauración.


Cuentan, también, con una serie de productos (sudaderas, camisetas, riñoneras, pins, pegatinas,...) para los socios y para todo aquel a quien le interesen; con ellos y con las cuotas de sus socios y las actividades que organizan anualmente, sufragan los gastos de la asociación.

En la actualidad son 17 los socios de **Hernaniko Motolagunak**, la mayor parte de ellos de Hernani o alrededores; y por supuesto, estamos abiertos a mas incorporaciones. ■

Los fundadores de Hernaniko Motolagunak (Alberto Arenales, Iñigo Gallastegi y Ángel Gil) en una edición de la concentración motera Pingüinos.



Ángel Gil e Iñigo Gallastegi con Fonsi Nieto, piloto de motociclismo.





Hernani Kirol Elkarteak, 23 urte

Hernani Kirol Elkarteak 1987an sortu zen, hain zuzen 1987ko ekainaren 15a izan zen Eusko Jaurlaritzak Elkarteen erregistroan onartu zuen data, 1.149 zenbakiarekin.

Hernaniko Kiroldegia ireki zenetik bertan kirol ezberdinak martxan jarri ziren. Kirol edo kluben elkartasuna beharrekoa zela ikusirik, denak bateratzea izan zen idea, horrela lan administratiboak erraztuta eta bateratuta babes gehiago lortzeko.

80. hamarkada aurreratua zen, Elorri Igeriketa Taldea, Hernani Gimnasia Elkarteak, Karate Elkarteak, Saskibaloia eta Hernani Boleibol Taldea bildu zirenean eta erabaki zutenean klub bat osatzea, elkarritzeta ugari izan ziren eta lehen proposamena izan zen kiroldegiak kirol ezberdinak egiten zituzten guztiak klub baten izenean biltzea, denek onartu zuten eskubaloikoek izan ezik.

Hamarkada berean bilerak izan ziren hiriko kirol guztiak klub baten izenpean

antolatzeko, baina helburua ez zen lortu, azken finean klub batzuen egoerak (C.D.Hernani, Hernani Rugby Taldea) ez zuen zerikusirik besteen egoerarekin, eta urteak pasa arren, gaur egun ere egoera oso ezberdina da.

Kluba osatzerakoan lehen erabakiak hartu behar ziren, armaria, koloreak, bulegoak e.a., ilusio handiarekin gaur egun dagoen armaria adostu zen, olinpiar antortxa barruan bost uztaik, azken finean kluba osatzen zuten kirolak olinpikoak baitziren. Klubak aurrezantzean erabiliko zituen koloreak ere segidan erabaki ziren, arrosa, urdina eta txuria, arrosa eta urdina kluba neskek eta mutilek osatuko zutelako eta txuri garbia, klubeko kirol proposamaren helburu bezala.

Klubaren sorreratik beti mantendu diren ideiak izan dira: bata Hernaniko gazteei kirol ezberdinak egiteko aukera ematea eta bigarrena, nahi izan duten guztientzako atea irekiak izatea, bai pertsonalki, bai talde modura. Azken idea honen ondorioz, urteak

pasa ahala kirol batzuk klubetik atera dira (Karate, Mahai Tenisa) eta beste batzuk klubean sartu (Judoa, Waterpoloa), azken finean kirola egitea baita helburu.

Hernani Kirol Elkartearen 23 urte hauetan milaka neska-mutilek izan dute aukera kirola egiteko, batzuek jolas modura eta beste batzuek konpetizio modura, baina denek atea irekiak izan dituzte eta gaur egun irekiak dituzte. Kluba beti prest egon da hiriko ikastolekin lan egiteko eta horrela egin du azken urteetan, elkarlaneko hitzarmenak sinatu ondoren.

Antolakuntza arloan, hasiera zaila izan zen eta zer esanik ez kluba mantentzea, beti ere kontuan izanik zuzendariek bere denbora eta ilusioa erabiliz elkartea aurrera ateratzea lortu dutela urte hauetan, eta hori ordaintzeko ez dago dirurik.

Hernani Kirol Elkarteak lotura handia du Hernaniko Udal Kirol Patronaturrekin, beti ere kontuan izanik Kiroldegia dela bere lana burutzeko esparrua, eta horrek arazo asko sortu ditu urte hauetan, eta une batzuetan arazoak oso larriak izan dira. Gogoan dugu 2003. urtean kluba desagertzeko zorian egon zela, Hernaniko Udal Kirol Patronatuko lehendakariaren jokaera zela eta. Lehendakari aldaketak egoera lasaitu eta lanean jarraitzea erabaki zen, hala ere zauria handia izan zen, larriena Mahai Tenisa desagertzea, zuzendaritzako batzordeko kide batzuk desagertzea e.a. Zazpi urte beranduago oraindik ondorioak nabarmenak direla esan behar.

Urte hauetan Hernaniko neska-mutilek eman dute bere hoberena eta lortu dituzten txapelketak, maila igoerak eta dominak maila guztiak eta kirol

Hernani Boleibol taldea.



ezberdinietan ikusita, amets goxoelean ere ikus zitekeena baino gehiago lortu dutela esan behar, zenbaezinak dira txapelketak, taldeka, edo dominak, banaka, Gipuzkoa, Euskadi edo estatu mailan.

1987an inork ez zuen pentsatzen urte hauetan, Europako txapeldunak, estatuko txapeldunak edo goi mailako kirolariak gure Hernani Kirol Elkartetik aterako zirenik, baina hori lortu dute Hernaniar neska-mutilek, eta emaitzaren atzean lan izugarria dago kirolari, entrenatzaile eta klubaren aldetik.

Urte hauetan ere izan da denbora herrian Txapelketak eta ikuskizunak antolatzeko, denon ezagunak diren Gabonetako Igeriketa, Saskibaloi, Boleibol txapelketak edo San Joaquin antolatu izan diren Judo eta Mahai-Tenis txapelketak. Atal honetan gogoratu behar 1994an Lehen Gabonetako Boleibol Txapelketa antolatu zela, bertan Euskadi, Espainia eta Alemaniako junior selekzioek parte hartu zuten. Lehen txapelketa emakumeek parte hartu zuten eta bertan hernaniarrak izan ziren Euskadiko Selekzioarekin, besteak beste, Oihana Iruretagoyena, Karmele Larraza edo Esther Lopez. 1995, 96 eta 97 urteetan ere antolatu zen txapelketa eta urte hauetan Hernaniko kiroldegi, Portugal, Belgika, Frantzia eta Espainiako selekzioak izan ziren Euskadiren aurkariak, orduan ez zitzaion behar adina garrantzi eman eta gaur egun oso zaila da maila horretako taldeak biltzea Euskadiren aurka jokatzeko.

Tamalez, urte hauetan une gaziek ere izan dira, bereziki gogoan ditugu kirolariak bidean geratu direnean, Oscar Ovejerok (Boleibol jokalaria) partidu batetik Hernanira zetorrela bidean galdu zuen bizitza eta hori gogoan dugu; era berean gogoan dugu klubarekin lotura zuten guraso edo laguntzaile batzuk ere bidean geratu direla, baina beraien esker gaude gaur hemen.

25. urtebetetzea gertu dugu eta guztako oparirik egokiena udalarekin hitzarmen bat sinatzea izan daiteke, kontuan izanik pasa diren 23 urte hauetan ezin izan dugula helburu hori lortu Udal Kirol Patronatuarekin. ■



Hernani Saskibaloi taldea.



Hernani Igeriketa taldea (1997-1998).



Hernanik kronika

10 urtez egunik huts egin gabe

Malores Etxeberria Arrese

2000ko maiatzaren 26an argitaratu zuen Dobera euskara elkartea Hernaniko Kronikaren 0 alea. Eta 2010ean hainbat ospakizun antolatu ditu herriko egunkariaren 10. urteurrena ospatzeko.

HERNANIKO kronika

2000. urteko
maiatzak 28, igandea.
0 alea.

Ongi etorri eta urte askoan

Hernaniko Kronika San Juan bezperan hasi eta egunero aterako da, ostegunetik astelehenera. Hernaniko berri eman du eta denentzat zabalik egongo da euskarazko egunkari hau.

Doberak bultzata,
egunkari berri
bat sorta da Her-
nanin, herriko
berri emateko asmoz.

Begi bistakoa da, geurea
mugimendu haundiak duen

herria dela. Gutztiak txukun
biltzen asmatuz gero, izango
du Kronikak etorkizunik.

ASTEAN 5 EGUNETAN
San Juan bezperan hasi, eta
kafean izango da astean 5

egunetan. Ostegunetik aste-
lehenera aterako da (astebu-
ruko giro aprobekatuz) eta
hernaniar guztiek izango
dute hemen tarteak, Kronika-
ren helburua, herriar guz-
tiekin irakurtea baita.

EUSKARAZKO LEHENA
Herri mailako prentsan eus-
karazko egunkari bat ater-
tzea sasikera berria da, baina
egunerokotasunaren xarma
du kronika honet. Honetako
ordea, guztiak lagun-

tza beharko du, albiste itu-
mirek erantzuten duten neur-
rian egingo baitu aurrera
Hernaniko egunkari berri
honek. □



Elias Miner



"Lorearen hitza landatuz,
ameslari planeta bateko
ahotsa izan"



"Instituzionalkeria utziz
kaleko berri eman dezala"



"Hernaniarren kezkak
azaldu ditzala"



"Elkarrezketa eta parte
hartze bide bat zabaldu
da"



"Hernaniarrentzat izan eta
hernaniarrek egitea
nahiko nuke"

"Herriaren eta herritarren
gora beherak kontatzea,
euskarra erabiliz"



"Talde guztiak
laguntzarekin aurrera ater-
adilla Hernaniko Kronika,
herri horrelako ekintzak
behar dira eta"



"Sendo, zuzen, egiz edo
egiaz, jator eta zorrotx lan
eginez, urte asko opa-
dizkot. Zeinek eskertuko
du dana? Euskarak, berak
egiten baikaitu euskaldun.
Hernanik guztiak
laguntzaz, eutsi eta bultzza
dizcraigun"



"Kronika, gure herrian
euskararen txingarratza su-
gartuko duen hauspoa
izango zarela, ONGI
ETORRI"



"Era guztiak intziak
jaso ditzela alderdikoia
izan gabe. Asko direnez,
herriko gauza onak ater-
daitezela, txarekin
nekatuta gaude eta."



"Herniko arazoak azal-
duko diren komunikabide-
bat falta da"



"Herniarrek herniko
gauzak jakin nahi dituzte.
Kronikak izan deziala
talde guztiak laguntza.
Gurea izango da"

Zure publizitatea
hemen
HERNANIKO
kronika
Deitu
943 33 08 99 ra

Kronika sortu eta urtebetera, urtekari honetan bertan, proiektuaren sortzaile izan ziren hiru kazetarik adierazten zuten berehala herriar askorengana iristea lortu zutela eta hernaniarrei gero eta ezagunagoa egiten ari zitzailea Hernaniko Kronika. 2001ean ginen eta Hernaniko Kronika astean 5 egunetan argitaratzen zen; 1.800 ale banatzen ziren egun bakoitzean. Kazetari hainbat idatzi zuten etorkizun handiko proiektua zela Kronikarena.

10. urteurrenetik begiratuta, kazetari gazte hainbat bete-betean asmatu zutela esan dezakegu. Gaur egun, asteeko 7 egunetan argitaratzen da Kronika, bi orrialdeko astebarrunan eta 8 orrialdeko astebarruan eta gehigarri bereziak diren astebarruko beste egun batuetan, jaietan, eta abar 4.600 ale banatzen ditu Hernaniko Kronikak egunero, batez ere kiosko eta okindegietan, eta Kronika ezagutzen ez duen hernaniarrik ez dagoela esan dezakegu, hanka sartzeko beldurrik gabe.

Aldaketa handiak egin ditu hamar urteotan Hernaniko Kronikak eta, era berean, proiektuaren hasierako filosofiarri tingo eutsi diola esan dezakegu. Herriko informazioa, informazio lokalak, euskaraz eskaintza eta herrian ahalik eta herriar gehienengana iristea zuen helburu. Egunkaria izan nahi zuen, egunerokoa, astean 7 egunez argitaratuko zena. Banaketa estandarra egin nahi zuen, ez etxez etxekoa. Gainerako egunkari eta aldizkariak saltzen ziren salmenta puntuetaan egon nahi zuen, kioskoetan eta okindegietan, salgai ze-



goen beste edozein egunkari erosten zuenari emateko. Doakoa izatea zuen helburu, ahalik eta etxe gehienetara iritsi ahal izateko. Autofinantzaketa ahalik eta handiena lortu nahi zuen, herriarren partehartzea bultzatzeko, dirulaguntzen menpekotasunak ez itotzeko, eta ahalik eta autonomoena izateko. Euskara ere edozein hernaniarrek gutxiago edo gehiago ulertzeko moduan egokitu nahi zuen.

10. urteurrenera iritsita, Hernaniko Kronikak 550 laguneko laguntzaile sarea du, urteko diru bat jartzen duena; eta, herriko denda eta establezimenduek, enpresek, Udalak, elkarreke... beren publizitatea egiteko lehenesten duten komunikabidea da. Hernaniko Kronikak urteko gastuaren %50 autofinantzatzea lortu du. Inguruko beste komunikabideekin alderatuz gero, herri-prentsan oso kopuru altua da Kronikak publizitatetik lortzen duen diru sarrera. Dendari berri bati baino gehiagorri entzun diot esaten estable-

zimendu berriaren propaganda egiteko lekukik aproposena Hernaniko Kronika dela. Kronikan publizitatea eginez gero, herritar askorengana iristen dela oihartzuna.

Ez dira garairik onenak paperezko prentsarentzat, oro har, eta euskarazko herri-prentsarentzat bereziki. Asko dira itxi direnak edota errekonbertsio edo birmoldaketak egin behar izan dituztenak, bizirkirik iraungo badute. Ez dira, ezta ere, garairik onenak dirulaguntza publikoetan dagokienean. Eta azken honen ostikada batzuk jaso berri ditu Hernaniko kronikak ere Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Hernaniko Kronikak erronka du krisi egoera horretan duintasunez jardutea eta herritarroi egeneroko informazioa zorroztasunez eta zabaltasunez ematea, eta doan, orain arte bezala. Eta horretarako, 10. urteurren honen muina izan den leloa ondo zabaltzea garrantzizkoa da: laguntzaile sarea zabaldu

beharra dago. Laguntza emateko aukera dugun herritarrok laguntza emanda lortu dezakegu Hernaniko 20.000 biztanleengana iristen segitza, euskarra ondo dakitenengana baina baita ere nekezagoko ulertzen dutenengana.

10 urteotan guztiz aldatu da hernaniarron eta euskara idatziaren arteko harremana, ezin da aipatu gabe utzi ebidentzia hau. Zenbat euskaldun izango ote ziren 2000. urtean euskaraz ezer irakurtzen ez zutenak eta zenbat dira orain. Zenbat ote ziren euskaraz idatzita normaltasunez ezer ikusten ez zuten erdaldunak eta zenbat dira orain egunero euskaraz idatzitako orri hori kioskotik hartu eta begiratu bat ematen diotenak.

Lan ederra ari da egiten Hernaniko Kronika, bai hernaniarron informazio gosea asetzeko eta bai euskararen normalizazioan aurrera egiteko. Hamar urte gehiago opa dizkiogu Hernaniko Kronikari. ■

Crónica 2009ko Kronika

Mikel Zapiain (Udal Artxiboa)

Urtarrila / Enero

- Urbietako kaleko Castilla farmaziak egingo ditu gaueko guardiak.
- Apertura al público, los domingos, de las instalaciones del Polideportivo.
- Eroskiko aparkalekua irekita igande eta jaiegunetan.
- Laubidieta etxea bota egin dute.
- Cáritas cambia de ubicación y se traslada a la casa parroquial (Izpizua kalea, 3).
- Saharako errefuxiatu kanpamenduetarako produktuen bilketa martxan: 8.000 kg producto bidaltzen dira.
- M. Zabalak irabazle Hernani Bidaia-ek antolatutako argazki lehiaketan.
- Emakumeen sormena, parte hartzea eta elkartrukea bultzatzeko lau ikastaro antolatzen ditu Jabetze Eskolak.
- KANTUZ Abesbatza toma parte en el concurso *Ho happy day* de ETB.
- *Ikusi-makusi* argazki lehiaketa (Hernaniko KRONIKA).
- Gure Artean Euskaraz egitasmoa martxan.
- Inicio del periodo de matriculación en el Centro de Educación de Adultos (EPA).
- La mejora del puente de Orbegozo y las reurbanizaciones de Etxeberri y Zikuñaga son los proyectos incluidos en el denominado "Plan Zapatero" de inversiones: 3.384.000 €.
- Temporada del txotx. El Ayuntamiento solicita la extensión del servicio de autobuses nocturnos a los viernes.
- Programa de ATZEGI para discapacitados intelectuales.
- Ocho mil bolsas reutilizables repartidas entre los comercios del municipio; se premia, con la realización de sorteos varios, su utilización.

Urtarrila 2 enero

- *Libera Cantoria Pisani* koro italiarra Milagrosan (KANTUZ abesbatza).
- Jokoak eta merienda Portu auzoan.

Urtarrila 3 enero

- Bertso-bazkari musikatua Errioguarda jatetxeán.

- Juegos lúdicos para niños en el Polideportivo.

Urtarrila 3 - 4 enero

- Santiagomendira asteburupasa (Gazte Txokoa).

Urtarrila 5 - 6 enero

- Erregeak datozi.

Urtarrila 7 enero

- Neguko merkealdiak hasten dira herriko dendetan (martxoaren 31ra arte).
- Elurra ari du: alerta egoera.

Urtarrila 9 enero

- 6. Berria Pelota Txapelketa martxan.

Urtarrila 10 enero

- Hernaniko Motolagunak *Pinguinos* konzentraziora.
- Kalez kale kantari.
- XII Gran Premio de Natación de Hernani.
- *Prest Dj* Itxaski tabernan.
- Un año de la desaparición de Alberto Zapirain.
- Bertso afaria Martindegia auzoan.

Urtarrila 11 enero

- Done Jakue Bidearen 5. etapa, Alegi eta Zegama artekoa (Mendiriz Men-di).
- Ludoteca acuática en las piscinas del Polideportivo.

Urtarrila 11 - 12 enero

- Atletismoa: Eider Aldabe, Maitane Iru-retagoiena, Lide Redondo eta Enara Agirrezabalak urrezko dominak lortzen dituzte Euskadiko Txapelketan.

Urtarrila 12 enero

- Bazterrola etxe okupatuaren inguruko solasaldia Ereñotzun.
- Se diseñará una red de 13 recorridos en Hernani para resaltar su riqueza cultural, histórica y naturalística.

Urtarrila 12 - 23 enero

- Obras de Luix Errazkin en Biteri Kultur Etxea.

Urtarrila 13 enero

- Laguntza tekniko eta ekonomikoei buruzko hitzaldia Goiz Eguzkin.

Urtarrila 14 enero

- *Piezas en fuga* liburuaren inguruko literatur solasaldia Liburutegian.
- Gorputzeko minak arintzeko trikimailuak (Amaia Aiertza, Zilegi Eskola).

Urtarrila 15 enero

- *Sahara no se vende* dokumentala Sandiusterrin.
- *The Clash* -en sortzaileari buruzko dokumentala Karboneran.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko Javier Madrazo eta Hernaniko Alkateak Txantxillako etxebizitzen inguruko lankidetza hitzarmena sinatzen dute.
- ZineKluba: *Fuera de carta*.

Urtarrila 16 enero

- Lehergailu batek eztanda egiten du Santa Barbaran.
- Disparo accidental de un escolta de la Secretaría General del PP, María Dolores de Cospedal, en el ayuntamiento.

Urtarrila 17 enero

- Palestinar elkartasuna adierazteko konzentrazioa Plaza Berrian.
- Topagune Berdea, bilera Biterin.

Urtarrila 18 enero

- *Hernani ezagutuz* egitasmoa, Ereñotzu aldera irteera (Mendiriz Mendi).

Urtarrila 19 enero

- Tabernetako Bertsolari Txapelketa Garin tabernan. Oxanek jazten du txapela.

Urtarrila 20 - 23 / 27 / 29 enero

- *Txanobarragorri* herri antzezlana Biteri Kultur Etxean.

Urtarrila 22 enero

- Literatura eta emakumeak eta Gure amonengandik ikasiaz ikastaroak martxan (Jabetze eskola).
- Azpiegituren inguruko hitzaldia Biterin (Nekane Jurado, NATZA Elkartea).
- Zinekluba: *Dejad de quererme* filma.
- Radio favela pelikula Karboneran.

Urtarrila 24 enero

- Palestinen aldeko bizikleta martxa (Gazte Asanblada).
- Oñati Ganbara Gaztea korua Milagrosoan (HERNANI Musika Eskola Publikoa).
- Haizea dabil: txikizio ederra.

Urtarrila 25 enero

- Osiñagako auzo elkartearren bilera Harratstu eskolan.
- Demostración de gimnasia rítmica en el Polideportivo.
- Ur ludoteka kirolegian.
- Barricada taldeak irekitzen du Hernaniko txotx denboraldia.

Urtarrila 27 enero

- Iturengo eta Zubietako Inauterietara (Zilegi Eskola).
- Ipuin ordua Beatriz Egizabalekin Udal liburutegian.
- Urumea ibaiak gainezka egiten du Laredo inguruan.

Urtarrila 28 enero

- Heldutasunak gordetzen duen plazerra ikastaroa martxan (Jabetze eskola).
- Joxe Antonio Gaztañaga (74 urte) desagertzen da; otsailaren 24an korputza aurkitzen da Urumean.

Urtarrila 29 enero

- Iritzxoen gainetik iritzia izenburuko hitzaldia Milagrosoan: Koldo Izagirre.
- ZineKluba: *Escondidos en Brujas*, Biterin.
- Buruntzaldeko euskera zerbitzuek webgune bateratua aurkezten dute.
- Los idiotas pelikula Karboneran.

Urtarrilla 30 – 31 enero

- Sedukzioa eta zentzumenak ikastaroa (Jabetze Eskola).

Urtarrilla 30 enero

- Ondo bizi eskultura erakusketa Biterin: Aitor Ruiz de Egino (Otsailaren 13ra arte).

Urtarrilla 31 enero

- El concursazo (Trapu Zaharrak) kale antzerkia.

- Santiagomendira irteera (Gazte Txoko).
- Lore Amenabar, Nestor Gascue eta Cristina Cortina akordeoilarien kontzertua Milagrosoan.

Otsaila / Febrero

- Urbia kaleko zuhaitzak aldatzten dira.
- Lurraldebus instala cámaras de vigilancia en autobuses de Donostia, Hernani y Andoain.
- Mañel Aizpuru eta Olatz Altuna Espainako Igeriketa Txapelketan.
- Chillida. Espacios Sonoros urteko lehen erakusketa Chillida Lekun.
- El grupo de tiempo libre Aurrera deja su actividad tras 20 años. ATZEGI coge el testigo.
- Lastaolako zentral zaharra erosten du Añarbe Urak enpresak.
- Envío de maquina-herramientas de Karmelo Labaka Instituto a Honduras. Una delegación hondureña visita el centro.
- Acuerdo entre el Ayuntamiento y los establecimientos hoteleros de la zona para casos de emergencia.
- Txotx denboraldirako hitzarmena adosatu dute Udalak eta tabernariekin.
- Atletismoa: Maitane Iruretagienak (junior maila) 3. postua lortzen du Spainako Txapelketan.
- Igeriketa: Olatz Altuna 50 m libreetan onena Spainako Txapelketan.
- Onintza Albeniz Benito arpajolea 2. Arpako Lehiaketa Nazionalean.
- Portu eta Sarasolari "maite zaituztegu" esateagatik Alkatearen kontrako auziarekin aurrera jarraitza erabaki du Pedraz epaileak.
- Un grupo de vecinos pide al Consistorio un protocolo que formalice los entierros aconfesionales.
- Astigarraga eta Hernaniko kirol zerbitzuak batera emateko hitzarmena onartzen da Plenoan.

Otsaila 1 febrero

- Trialsina: Gipuzkoako Txapelketako lehenengo froga Fagollagan, Benito Ros (munduko txapelduna) irabazole.

Otsaila 2 – 13 febrero

- Matrikulazio kanpaina martxan herriko ikastetxeetan.

Otsaila 3 febrero

- Charla sobre como ejercitarse la memoria (Centro Socio-Cultural de la Mujer Elcano, 17).

Otsaila 4 febrero

- Santa Ageda erronda herrian barrena eta Ereñotzun.

Otsaila 5 febrero

- Zinekluba: *Los limoneros* pelikula Biterin.
- Desayuno en Plutón pelikula Karboneran.
- Barreak egiten duen mesedea hitzaldia Biterin.

Otsaila 5 – 6 febrero

- Mendiko materialaren azoka (Mendiriz Mendi).

Otsaila 6 febrero

- Bob Marleyren urteurren ospakizuna Leoka tabernan (Aritz Sound System).

Otsaila 7 febrero

- Kalderero konpartsa (Elur Txori).
- Hernaniko Musika Bandaren kontzertua Milagrosoan.
- Pruebas de atletismo de libre participación (C.D. Hernani).
- Ereñotzuko Bazterrola etxe okupatuaren aldeko bizikleta martxa.
- Dreadive musika jartzaleak Itxaskin.

Otsaila 8 febrero

- Hernani ezagutzugitxoa: Ugaldetxo inguruan buelta Hernaniko pagadi ederreñak ezagutzen (Mendiriz Mendi).
- Mendi irteera Sagastialde elkarteko antolatuta.
- Exhibición y torneo de gimnasia en el polideportivo.
- Ur ludoteka kirolegian.
- Una joven agredida sexualmente en la zona de Gabriel Zelaia plaza. El Ayuntamiento condena la agresión y convoca una concentración.
- Un anciano fallece arrollado en el Apeadero.

Otsaila 9 febrero

- Fdz & Quintá bikotearen kontzertua Biterin.
- Santa Barbaratik Portura doan aireko arindar linea kentzen hasi dira.

Otsaila 9 – 27 febrero

- Curso de socorrismo organizado por DYK Gipuzkoa.

Otsaila 10 febrero

- Charla sobre los problemas de espalda (Michel Marmier, quiopráctico; Urumea Ikastola).
- Alderantzizko hipotekari buruzko hitzaldia Goiz Eguzkin.

- Palestinari buruzko bilera Biterin (Kooperrazio taldea).
- El Ayuntamiento y la Fundación Eduardo Chillida-Pilar Belzunce firman un convenio de colaboración.

Otsaila 11 febrero

- *El americano impasible* (Graham Green) liburuari buruzko solasaldia Udal liburutegian.
- Charlas y demás actividades en torno a la campaña *Sensibilización con el Sur*.

Otsaila 12 febrero

- Xabier Makazagaren torturaren inguruko liburuaren aurkezpana Biterin (NATZA Elkarte).
- Zinekluba: *La boda de Rachel* pelikula Biterin.
- *Paradise Now* pelikula Karboneran.
- Urumea ibaiak gainezka egiten du, azarotik hona hirugarren aldiz.

Otsaila 13 febrero

- *Ikustezina ikusten ikasten emanaldia* Biterin.

Otsaila 14 febrero

- Eskiatzera bidaia antolatzen du Kontraktantxa Gaztetxeak.
- Bidezko Merkataritzaren postua Plaza Berrian.
- Kalez kale kantari.

Otsaila 14 – 15 febrero

- Barre tailerra emakumeentzat (Virginia Imaz, Jabetze Eskola).
- HERNANI Musika Eskola Publikoko 43 ikaslek parte hartzen dute Andoaingo piano jaialdian.

Otsaila 15 febrero

- Inauteriako kontzertua udaletxeko arkupean (Musika Banda).
- Gaztetxoentzako irteera Pasaia San Pedro eta Donostiara (Mendiriz Mendi).
- Iñude eta Artzaia konpartsia (Urumea ikastola).

Otsaila 16 febrero

- Joven arrollado por un tren.

Otsaila 17 febrero

- *Jeans-ak hozkailuan* liburuari buruzko literatur tertulia Udal liburutegian (Ane Mayoz).

Otsaila 19 febrero

- Trafiko araudi berriaren inguruan bilera (KAXKO Elkarte).

- *Los últimos Zapatistas, heroes olvidados* dokumentala Karbonera.
- ZineKluba: *Aritmética emocional* pelikula Biterin.

Otsaila 20 febrero

- Presentación de HERNANI Arraun Elkartea.

Otsaila 20 – 24 febrero

- Inauteriak. Saioa Cid Barriga urnietarra da kartelaren egilea. Josetxo Lazkano omendua.

Otsaila 20 – 28 febrero

- Argazkilaritza: *Euskal Herriko arrazak* erakusketa Biterin (Marisol Yaben).

Otsaila 21 – 22 febrero

- Atletismoa: Maitane Iruretagoiena Espainako Txapelketan, absoluto mailan.

Otsaila 22 febrero

- 53ko kintoen bazkaria.

Otsaila 24 febrero

- Ipuin ordua udal liburutegian (Maite Franco).

Otsaila 27 febrero

- Uholdeek kaltetutako bizilaguneen manifestazioa.

Otsaila 28 febrero

- Sagar Lasterra.
- Portuko auzotarren eskiatzera joateko plana, Arett-era.
- Nahas Mahas azoka Atsegindegin.

Otsaila 28 febrero – Martxo 1 marzo

- 36. Zuhaitz Eguna: 1.500 haritz eta pago aldatzen dira.
- Trabesiako eski ikastaroa (Mendiriz Mendij).
- Atletismoa: Miguel Ángel Garin eta José María Murua beteranoek emaitza onak lortzen dituzte Spainako Txapelketan.

Martxo / Marzo

- Haudunaldiari buruzko tallerra.
- Los pelotaris Ioritz Arrieta, Mirari Pagola e Irati Ugalde se clasifican para disputar la final de la Liga Vasca.
- Curso de informática para jubilados en Biteri.
- Udal liburutegia: irakurle eta liburuzainek liburu kutunen zerrenda egiten dute.
- HERNANI Musika Eskola Publikoko Leoka, Koxkorri, Saxoka eta Hernasax

taldeek eta Roberto Pacheco irakasleek sariak lortzen dituzte Elgoibarko Musika Lehiaketan.

- Elizatxo ikastolako Maider Perez saritua Berdintasun arloak antolatutako lehiaketa.

- Udan Saharako haurrak etxean hartzeko kanpaina martxan da.
- Errrotuluak euskera hutsean jartzeagatik diru laguntza haundiagoak onartzen dira.

- Maitane Cordero, Mara Olazabal eta Maddalen Otaegi HERNANI Musika Eskola Publikoko ikasleek aipamen berezia eta diploma lortzen dituzte Donostia Hiria 16. Nazioarteko Piano lehiaketa.

Martxo 1 marzo

- Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak.
- Ur ludoteka kirolegian.
- L'ancora Duo-ren kontzertua Milagro-san.

Martxo 3 marzo – Maiatz 21 mayo

- Sendabelarren ikastaroa Biteri Kultur etxean.

Martxo 5 marzo

- *Bertso trama Iparragirre Sagardotegian.*
- Krisi ekonomikori buruzko hitzaldia Biterin (Joseba Garmendia, NATZA Elkarte).
- *Persepolis* pelikula Karboneran.
- Iraitz Santakrutz atxilotuta. Urtzi García aske.

Martxo 6 marzo

- *Komando itinerante eta Trifulka taldeen kontzertua Leokan.*
- Aurka taldearen kontzertua Garinen.

Martxo 7 marzo

- *Hipo eta Tomax Atsegindegin.*
- Korrika 16ko materiala saltzeko postuak.
- Txirrindularitza probak Ibarluze poligonoan (JOCC Peña Otaño).
- Txantxangorri premiada en la *Gala de la Pesca de Gipuzkoa*.
- *Haritza* musika taldeak bere 30 urteak ospatzen ditu.

Martxo 8 marzo

- Emakumeen Nazioarteko Eguna... Honen inguruan, komiki eta marrazki lehiaketa Gazte Txokoan.
- Fiesta anual de los quintos del 60.
- Gaztetxoentzako ibilaldi neurria (Mendiriz Mendi).

- Kontzeta Milagrosan (HERNANI Musika Eskola Publikoa).
- Baloncesto los domingos ekitaldia kiroldegian.

Martxo 9 marzo

- Buruntzaldeko enpresetan euskara sustatzeko Udal eta enpresen arteko plana sinatuta.
- Motibazio saioak martxan (DOBERA Elkartea).

Martxo 10 – 12 marzo

- Antzerki zikloa: Ohean (Maskarada konpainia), Maldito parné (Glu glu produzioniak) eta Hor al zaude? (Kanpingags konpainia) Biterin.
- Larrialdi planari buruzko hitzaldia Goiz Eguzkin.

Martxo 11 marzo

- Carta al Padre (Frank Kafka) liburuaren inguruko literatur solasaldia Udal liburutegian.
- El Salvador-i buruzko hitzaldia Biterin (Fe y alegría Gobernuz Kanpoko Erakunde).

Martxo 12 marzo

- Mataharis pelikula Karboneran.

Martxo 13 marzo

- Hezkidetza tailerra (Ane Iturbe eta Nera Sanchiz, Gazte Txokoa).
- Oro negro bidezko merkatari buruzko dokumentala Biterin.

Martxo 13 – 26 marzo

- Pintura eta eskultura erakusketa Biterin (Iker Valle).

Martxo 14 marzo

- Araba aldera irteera: Lagran eta Cruz del Castillo aldera (Mendiriz Mendi).
- Zarautzera irteera (Goiz Eguzki).
- Topagune Berdea: Hondakinak eta mugikortasuna, Biteri Kultur etxearen.
- Erdi Aroko postua (Langile ikastola).
- Merkealdia azoka Atsegindegin (BERRIAK).
- Kalez Kale Kantari.
- Landreground Dja Itxaski tabernan.
- Kontzertuak Tilosetan (Gazte Asanblada).

Martxo 14 – 15 marzo

- Iraupen eskia eta eski alpinoa egiteko irteera (Mendiriz Mendi).
- Hernaniko igerilariak Euskadiko Txapelketan.

Martxo 14 – 27 marzo

- KORRIKA KULTURALA: Sebastopoloko Titiriteroak Tilosetan, mendi irteera Aranora, Asier Serrano Kixkal tabernan, KORRIKA dokumentala,... Haur Korrika, Korrika gaztea,... (martxoaren 27an).

Martxo 15 marzo

- TOLAREA Gipuzkoako Sagardo Naturaren Kofradiaren 40. Kapitulua: Juanjo Uria, Axen Jimenez, Angel Alvarez eta Lucio Urtubia kofrade berriak izendatzen dituzte.
- Ur ludoteka kiroldegian.
- Hernaniko gimnastak Eskola arteko Txapelketan, Astigarragan.
- Xabier Salillas participa en el maratón de 100 Kms de Vallecás.
